



# Emakumeen aurkako etxe barruko **Indarkeria**

Bizkaiko Lurralde Historikoan  
egindako ikerketa baten emaitzak



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Gizarte Ekintza  
Saila  
Departamento de  
Acción Social

Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia  
Gizarte Ekintza Saila. Departamento de Acción Social  
Ugasko 3, 2<sup>a</sup> Solairua.  
48014 BILBO

Moldiztegia: Grafilur

Diseinua: Logaritmo. Diseño y Comunicación Visual

ISBN: 84-7752-414-9

Lege Gordailua: BI- 2591-06

<b>I. KAPITULUA</b>	<b>SARRERA</b>	7
<b>II. KAPITULUA</b>	<b>HELBURUAK</b>	11
	2.1. Helburu Orokorra	13
	2.2. Helburu Bereziak	13
<b>III. KAPITULUA</b>	<b>IKERKETAREN DISEINUA</b>	15
	3.1. Emakumearen Institutuaren makroinkestak erreferentzia eredutzat	17
	3.2. Ikerketa honen ekarpen metodologiko nagusiak	18
	3.2.1. Galdeketaren diseinu partekatua	18
	3.2.2. Erabilitako sailkapen hirukoitza	18
	3.2.2.1. Adierazitako tratu txarra	19
	3.2.2.2. Tratu txar teknikoa	19
	3.2.2.3. Tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean	19
	3.2.3. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren bost tipologia	20
	3.2.3.1. Indarkeria fisikoa	21
	3.2.3.2. Indarkeria sexuala	21
	3.2.3.3. Indarkeria ekonomikoa	21
	3.2.3.4. Indarkeria psikologikoa	21
	3.2.3.5. Indarkeria soziala	21
	3.2.4. Emakumeen aurkako indarkeria egoerek Bizkaiko eguneroko bizitzan duten presentzia sozialaren mailaren ezagupena eta beste interes batzuk	21
	3.3. Laginaren segmentazio aldagaiak	22
	3.4. Landa-lana: iruzkinak	22
	3.5. Ikerketaren irismenari buruz	23
<b>IV. KAPITULUA</b>	<b>EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN: EMAITZEN AZTERKETA</b>	25
	4.1. Oinarrizko adierazleak	27
	4.2. Ezaugarri soziodemografikoak	27
	4.2.1. Adin taldeak	27
	4.2.2. Egoera ekonomikoa, soziala (edo mailakoa) eta bizikidetzakoa	29
	4.2.2.1. Bikote harremana	29
	4.2.2.2. Egoera zibila	30

4.2.2.3. Bizikidetza gunearen mota . . . . .	31
4.2.2.4. Ekarpen ekonomiko nagusia bizikidetza-gunera . . . . .	33
4.2.2.5. Posizio soziala (maila sozial subjektiboa) . . . . .	34
4.2.3. Ikasketa maila . . . . .	35
4.2.4. Lan egoera . . . . .	36
4.2.4.1. Okupaturiko emakumeei buruz . . . . .	38
4.2.4.2. Enplegatu gabekoak eta ez-aktiboak diren emakumeei buruz . . . . .	39
4.2.5. Jaiotza lekua . . . . .	42
4.2.6. Bizilekua (udalerraren tipologia) . . . . .	43
4.3. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak Bizkaian gaur egun . . . . .	44
4.3.1. Egoeren araberako emaitzak: "etxeke lanaren balorazio ezaren" hegemonia . . . . .	45
4.3.2. Tipologiaren araberako emaitzak: indarkeria psikologikoa, etengabea . . . . .	47
4.3.3. Egoeren iraunkortasuna denboran . . . . .	50
4.3.4. Bikotekidea, tratu txarraren eragile nagusia: adina, ikasketa maila eta lan egoera . . . . .	50
4.3.5. Oihuak, irainak edo mehatxuak eta psikologikoak ez diren beste indarkeria egoera batzuk, emakumeak tratu txarraren biktima izateari buruz duen banakako pertzepzioaren inflexio-puntutzat . . . . .	53
4.4. "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean": azterketa berezia . . . . .	53
4.4.1. Egoeren araberako emaitzak: "etxeke lanaren balorazioarik ezaren" hegemonia txikiagoa . . . . .	55
4.4.2. Tipologiaren araberako emaitzak: adierazitako tratu txarrerako hurbilketa . . . . .	55
4.4.3. Denboran irauten duten egoerak . . . . .	57
4.4.4. Bikotekidea, tratu txarraren eragile nagusia: adina, ikasketa maila eta lan egoera . . . . .	58
4.4.5. Arrisku egoerako emakume talde baten identifikazioa . . . . .	60
4.5. "Adierazitako tratu txarra" azken bi urteotan: azterketa berezia . . . . .	61
4.5.1. Indarkeria psikologikoaren nagusitasuna . . . . .	61
4.5.2. Oraingo bikotekidea edo bikotekide ohia, tratu txarraren eragile nagusia, eta matxismoa, indarkeria eragiten duen faktore nagusia . . . . .	61
4.6. Indarkeria egoerak zituen harremana apurtzearen ondorioak: eraginpeko emakumeen iritzia . . . . .	62
4.7. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentzia soziala . . . . .	64
4.7.1. Emakumearen aurkako indarkeria: Bizkaiko emakumeen arazo nagusienetarikoa . . . . .	65

4.7.2. Kasuen nagusitasuna familiakoa ez den inguru hurbilean: lagunak eta ezagunak . . . . .	66
4.7.3. Senarra: tratu txarraren eragile nagusia, inguru hurbil horretan ere . . . . .	67
4.7.4. Indarkeria fisikoaren eta psikologikoaren baterako presentzia . .	67
4.7.5. Salaketarik eza eta indarkeria egoerak dituen harremanaren mantenamendua. . . . .	69
4.8. Halako harremanak apurtzeko oztopoak . . . . .	70
4.9. Oraingo laguntza baliabideen ezagupen mailari buruz: zabalkunde ahalegin handiagorantz . . . . .	72
<b>V. KAPITULUA</b> <b>EMAITZEN LABURPENEA.</b> . . . . .	<b>75</b>
<b>VI. KAPITULUA</b> <b>BIBLIOGRAFIA.</b> . . . . .	<b>81</b>
<b>I. ERANSKINA</b> <b>Taulen eta grafikoen aurkibidea</b> . . . . .	<b>85</b>
<b>II. ERANSKINA</b> <b>Telefonotik egindako galdeketa (2005eko Urria - Azaroa).</b> . . . .	<b>91</b>





# I. kapitulua

Sarrera





**B**izkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren presentzia sozialaren mailaren eta oraingo egoeraren identifikazioa da ikerketa honen helburu nagusia.

Errealitate horren dimentsioa modu objektiboan adierazten duten adierazle batzuk ditugu lehenengoz: Bizkaian bizi eta etxe barruko indarkeria egoerak jasaten dituztela dioten emakumeen ehunekoa, egoera horiek jasan baina zuzenean esaten ez duten emakumeen ehunekoa eta, azkenik, Bizkaian bizi eta inguru hurbileko emakumeen aurkako indarkeria egoerak ezagutzen dituztela dioten emakumeen ehunekoa.

Gainera, emakume talde horien ezaugarri soziodemografikoak, horiek etxe barruan jasaten duten indarkeriaren (edo tratatu txarraren) egoerak nahiz tipologiak, horiek denboran duten iraupena eta emaitza horien konparazioa (Bizkaian bizi diren emakume guztiei dagokienez) identifikatzen dira.

Jakina, emaitza horiek azaldu aurreko pausotzat, ikerketaren jatorriak, horren oinarritzko erreferentzia teorikoak nahiz metodologikoak, emakume taldeen sailkapenak (etxe barruko indar-

keriarekin duten erlazioa aintzat hartuta) eta bost tipologiatan sarturiko indarkeria egoerak azaldu behar dira. Hori guztia diseinu metodologikoaren kapituluaren adierazita dago.

Ikerketaren amaieran, laburbilduta, emaitza nagusiak azaltzen dira; kapitulu horretan ondo ikuskatzen dira lehen adierazitako elementu nagusietariko batzuk.

*BEHATOKI, S.L. Estudios Sociológicos y de Mercado* enpresaren ustez, komenigarria izan da erabilitako galdeketa eranstea. Horrela, ikerketaren emaitzak hobeto interpretatu eta, gainera, aukera ematen da emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren fenomenora egiten diren hurrengo hurbilketetan hobetzen joateko, lan honetan indarkeria horrek gure gizarteetan duen eguneroko presentzia ikusten baita.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketa honetan parte hartu nahi izan duten emakume guztiei; emakumeok eurei buruzko informazioa eta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruzko iritziak eman dituzte. Hala eta guztiz ere, eskerrak oraindik ere handiagoak dira tratatu txarrak jasan eta euren oraintsuko esperientziak azaldu dizkiguten emakumeen kasuan.





## II. kapitulua

### Helburuak



## 2. HELBURUAK

### 2.1. HELBURU OROKORRA

- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Emakume eta Familia Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerari buruz egindako diagnostikoa hobetzea.

### 2.2. HELBURU BEREZIAK

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko 18 urteko edo gehiagoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren kopurua adieraztea.
2. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia ezartzea: "fisikoa", "sexuala", "ekonomikoa", "psikologikoa" eta "soziala".
3. Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak bereiztea, sailkapen hirukoitzaren arabera: "adierazitako tratu txarra", "tratu txar teknikoa" eta "tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean".
4. Etxe barruko indarkeria egoerak jasaten dituzten emakumeen "ezaugarri sozio-demografikoak" aintzat hartzea: "adina, bizikidetzaren gunea (bikote erlazioa, egoera zibila, ekarpen ekonomikoa, maila soziala), ikasketa maila, lan egoera, jaiotze lekua eta bizilekua (udalerraren tipologia).
5. Halako harremanak apurtzea "oztopatzen" dituzten faktore kulturalak, hezkuntzakoak, ekonomikoak, administrazioak edo bestelakoak identifikatzea.
6. Etxe barruko indarkeria egoeren "ondorioak" ezagutzea, horren eraginpeko emakumeek azaldutakoaren arabera.
7. Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerei buruz inguru hurbilean (familia, auzokoak, etab.) dagoen "ezagupen maila" edo "presentzia soziala" aintzat hartzea.
8. Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen "tratu txarraren eragilearen" ezaugarriak ezagutzea.
9. Etxe barruko indarkeria egoerak jasan eta Bizkaian bizi diren emakumeei laguntza eta sorospena emateko orduan "hobekuntza estrategien" orientaziorako oinarriak ezartzea.





## III. kapituluu

### Ikerketaren Diseinua





### 3. IKERKETAREN DISEINUA

Kapitulu honetan, ikerketaren diseinu teorikoaren eta metodologikoaren prestakuntza prozesua ageri da: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren definizioak; indarkeria horren 5 tipologiak (fisikoa, sexuala, ekonomikoa, psikologikoa eta soziala), etxe barruko tratu txarraren presentzia adierazten duten 14 egoera biltzen dituztenak; eta Bizkaian bizi diren emakumeek etxe barruko indarkeriarekin orain duten erlazioa ulertzeko erabilitako hiru sailkapenak (adierazitako tratu txarra, tratu txar tekniko eta tratu txar tekniko zentzu zorrotzean).

Horri guztiari, gainera, ikerketan parte hartu duten emakumeen lagina egiteko aldagaiak, informazioaren bilketa zuzena egitean (landa lana) sortu diren iruzkinak eta ikerketaren irismenari buruzko hausnarketak gehitu behar zaizkio; ikerketa, izan ere, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria deritzon fenomeno konplexura orientaturik dago.

#### 3.1. EMAKUMEAREN INSTITUTUAREN MAKROINKESTAK ERREFERENTZIA ERDUTZAT

Hasiera-hasieratik, 1999tik Emakumeen Institutuan (orain Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioan integraturik) garatu diren ikerketak *jarraitu beharreko ereduak* ziren.

Emakumearen Institutuak bi makroinkesta egin ditu, 1999. eta 2002. urteetan, *"Etxe barruko indarkeriaren aurkako ekintza plana, 1998-2000"*. Beraz, etxe barruko generoko indarkeriari buruzko datuak lortu ziren lehenengoz, 18 urtetik gorako emakumeen biztanleriari buruzkoak, Estatu osoan eta Autonomia Erkidegoetan<sup>1</sup>. *"Etxe barruko indarkeriaren aurkako II. ekintza plana, 2001-2004"* abian jarrita, Emakumearen Institutuak berriro ere hirugarren makroinkesta bat jarri du martxan, eta horren helburu nagusia ordura arteko ikerketetan garaturiko lanari jarraipena ematea izan zen.

Ikerketa honetan, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera horien ezagupen mailan sakontzeko asmoa dago, baina Bizkaiko Lurral-

de Historikoari dagokionez soilik. Horrela, halako egoerek Bizkaiko eremu geografikoan dituzten adierazleak aurkeztu dira lehenengoz, izaera aurrendariarekin, eta hori Euskal Autonomia Erkidego osora (EAE) hedatzeko aukera dago, maila autonomikoan ez baitago halako ikerketarik; hau da, ez dago emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazio *zuzenera* bideraturik dagoen eta adierazgarria den ikerketarik, estatistiken edo arlo bakoitzeko erakunde zerbitzuek bildutako beste edozein adierazle motaren bidez (*zeharkakoak*) eginda ez daudenik.

Emakumearen Institutuaren kasuan beazala, ikerketa honen metodologiak oinarritzeko hiru elementu erabili ditu informazio bilketa egiteko: lehenengo eta behin, informazioa biltzeko teknika bera erabili da, CATI sistemaren bidez erdi egituraturiko telefonozko galdeketa; bigarrenaz, ikerketaren helburu nagusia ezkatatzeko estrategia bera erabili da, bertako ahalezko partaideek parte hartzeko; eta, hirugarrenez, sailkapen bikoitza mantendu da, emakumeek etxe barruko indarkeria egoerarekiko duten lotura mailaren arabera identifikatzeko. Hala eta guztiz ere, aurrerago azalduko dugunez, lorturiko emaitzak aztertu ondoren, beste sailkapen bat ezarri da.

*Erdi egituraturiko telefonozko galdeketa*n, batez ere itxiak diren itemei buruzko informazioa biltzen da, baina nolabaiteko autonomia ere onartzen da, inkestaturiko pertsonak emandako erantzunetan. Oraingoan, ikerketaren izaeraren ondorioz, autonomia bitarte horiek inoiz baino gehiago lortu nahi izan dira, "entzute-ingurua" ezarrita, ikerketan parte hartu duten emakumeek emandako iritziak eta sententzioak modu ahalik eta egokienean interpretatzeko.

Horri dagokionez, emakumeen galdeketa emandako erantzunen zati handi baten *izaera konprometitu*a aintzat hartuta (bertan "ikusezintasun soziala" nagusitzen baita, hori gainditzeko ahalegin itzela egin arren), ikerketaren helburuak bete ahal izateko, Emakumea-

<sup>1</sup> EMAKUMEAREN INSTITUTUA. Emakumeen aurkako indarkeria. Makroinkestaren emaitza. 1999ko uztaila. 2000; eta Emakumeen aurkako indarkeria. Makroinkestaren emaitza. 2002. Madril. 2003 (inprimaturiko ediziorik gabe).

ren Institutuaren ikerketetan nagusia izan den ezkutatzearekin edo disimuluan jarraitu behar izan dugu. Horrela, Bizkaian bizi eta inkestako ahalezko emakume partaideekin harremanetan jartzean ez zaie berariaz azaldu emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruzko inkesta egiteko asmoa genuenik; esan zaie inkestak helburu orokorragoa zuela: Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Familia Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi den emakumearen egoera orokorra ezagutzea.

Ezkutatze estrategia hori erabili arren, inkestan parte hartu duten emakume guztiei *erantzunen izaera konfidentziala eta anonimoa* bermatu zaie, eta horrela, ikerketari konfidentzialtasun elementu bat gehitu zaio, partaide guztien esku harremanetarako telefono bat jarri baita, Emakumea eta Familia Zerbitzuarekin, hori guztia egiaztatu ahal izateko.

### 3.2. IKERKETA HONEN EKARPEN METODOLOGIKO NAGUSIAK

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria ekintzen identifikaziorako estrategia metodologikoak, Emakumearen Institutuak garatutakoak, erreferentziako ereduak izan dira, baina ikerketa honek bere ekarpen bereziak ere egin ditu. Lau ekarpen nagusiak aipatuko ditugu:

- Lehenengo eta behin, hiru zatitan partekaturiko diseinua egin da, erabilitako telefonozko galdeketari dagokionez.

- Bigarrenez, Emakumearen Institutuak erabilitako *"adierazitako tratu txarra"* eta *"tratu txar teknikoa"* sailkapenei, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren sailkapen berria gehitu zaio: *"tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean"*, eta sailkapen hori gehiago egokitzen da halako egoeren "errealitateari".

- Hirugarrenez, Emakumearen Institutuak erabilitako emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria tipologiaren formulazio berria eta gaurkotua egin da.

- Eta, laugarrenez, ikerketa honen helburua hiru alderdiren identifikazioa da: etxe barruko tratu txarreko harreman horiek apurtzea oztopatzen duten faktoreak; apurtze horrek emakumeengan sortzen dituen ondorio-

ak; eta Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliarren inguru hurbilean emakumeen aurkako indarkeria egoera horiei buruz dagoen ezagupena.

Orain, ekarpen horiek adieraziko ditugu.

#### 3.2.1. Galdeketaren diseinu partekatua

Lan hau Bizkaian eta EAEn aurrendaria dela kontuan hartuta, erabilitako informazioa biltzeko teknikaren diseinu partekatua egin behar izan da. Horrela, ikerketaren lehenengo fasean lanerako ezarritako dinamikan honako hauek hartu zuten parte: BEHATOKI, S.L. Estudios Sociológicos y de Mercado, Emakumea eta Familia Zerbitzua (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Hautzaro, Emakume eta Elbarri Zuzendaritza Nagusia) eta Emakunde.

Emakumearen Institutuak garaturiko prozesu metodologikoa erreferentziatzen hartuta, eta prozesu hori ikerketa honetako helburuen arabera gaurkotu beharra aintzat hartuta, hasiera-hasieratik ere Emakundek egindako galdeketan aldatu beharreko gauza batzuk ikusi ziren. Hain zuzen ere, bi gauza: galdeketa errepikatu egiten ziren galderen presentzia, gure ustez hori ez baitzen beharrezkoa; eta, agian garrantzitsuagoa zena, formulazioan erabilitako nolabaiteko tonu biktimista, emakumearen rol pasiboa nabarmenduz.

Gaiak murrizteko, biktimismoa urritzeko eta ikerketaren helburu berezien arabeko galderak egiteko, partekaturikoa eta partaidetzakoa zen prozesu baten bidez, azkenik, telefonozko galdeketa prestatu zen, hogeita hamazortzi (38) galdera orokorrekin, eta galdeketa hori eranskintzat jasota dago hemen.

#### 3.2.2. Erabilitako sailkapen hirukoitza

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren ikusezintasun soziala, horiek arlo pribatuaren barruan duten mantentamendua (ate barruan, Duráñen<sup>2</sup> adierazpen klasikoa erabiliz) eta ikerketaren helburua ezkutatzeko estrategia (aukera metodologikoa egokiena zelakoan) aintzat hartuta, Emakumearen Institutuak egindako bi ikerketen kasuan bezala, informazioa biltzean erabilitako galdeketaren diseinuak eta betearazpenak modu berezian biltzen ditu emakumeen aurkako etxe barruko *indarkeriaren adierazle zuzenak eta zeharrekoak*.

<sup>2</sup> DURÁN, M. A. *De puertas adentro*. Emakumearen Institutua. Madril. 1987.

Informazioa biltzeko prozesu horretan, emakumeak hiru multzo handitan sailkatu behar dira (horien ondorengo azterketa egiteko), etxe barruko indarkeriarekiko duten egoera aintzat hartuta: *adierazitako tratu txarra, tratu txar teknikoa eta tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean*.

### 3.2.2.1. Adierazitako tratu txarra

Emakumearen Institutuak egindako ikerketaren arabera, "B motako emakumeek" galdeketa esaten dute azken urtean indarkeria egoeraren bat jasan dutela etxe barruan edo harreman afektibo edota sentimental batean.

Ikerketa honetan, onartu egiten dugu sailkapen hori, eta beraz, adierazitako tratu txarraren barruan emakume hauek sartzen dira: azken bi urteotan tratu txarrak jaso dituztela onartzen duten emakumeak, eta horiek baiezko erantzuna eman diote erabilitako galdeketa 24. galderari. Aldaketa, beraz, indarkeria egoeraren denbora eremuan dago, eta hori bi urtera luzatu da (Emakumearen Institutuaren ikerketetan urtebeteko epea erabiltzen zen).

### 3.2.2.2. Tratu txar teknikoa

Definizio hau ere Emakumearen Institututik hartu dugu. "A motako emakumeek", etxe barruko berariazko tratu txarrak jaso ez arren, galdeketa 21. galderan (sarritan edo batzuetan kategorietan) proposaturiko etxe barruko hamalau (14) indarkeria egoeretatik gutxienez bati emandako erantzunak aintzat hartuta, esan daiteke, *zeharka* bada ere, *gaur egun* etxe barruko indarkeria egoerak jasaten dituztela.

Ikusten denez, sailkapen tekniko honen gauza bereizgarria ez da emakumeak etxe barruko tratu txarra jasaten duela berariaz ez esatea bakarrik, egoera horrek edo horiek arlo horretan duten maiztasuna baizik. Denbora aldagai horrek (sarritan edo batzuetan), beraz, iragankorrak edo unearen arabera ez diren emakumeen aurkako indarkeria egoeren presentzia adierazten du, eta egoera horiek ohikoak dira harreman afektibo edota sentimental horretan.

### 3.2.2.3. Tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean

Hirugarren sailkapen hau ikerketa honen berezitasunetariko bat da. Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren oraingo

identifikazioaren errealitatean bertan oinarritzen da. Emaitzen azterketak egiaztaturikoaren arabera, tratu txar teknikoaren sailkapenaren barruko emakume batzuek indarkeria egoera identifikatzeko egoeretariko bati soilik ematen zion "sarritan" edo "batzuetan" erantzuna: "ez du bere lana baloratzen" aukera, "21. orrialdeko 12. enuntziatua)".

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera honi (tipologia psikologikoaren barrukoa) emandako erantzunak eta, horrela, gainerako egoeretan "sarritan" edo "batzuetan" erantzunik ez emateak agerian jartzen du egoera horrek bestelako izaera edo izaera berezia duela, eta hortaz, *erantzun talde hau neutralizatzen aukera* dago, beste emakume talde bat ezartzeko, etxe barruko indarkeriarekin duten erlazioa kontuan hartuta: *tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean*.

*Tratu txar teknikoaren barruan sailkatutako emakume taldearen barruan egindako bereizketa* horretatik ondorioztatzen denez, etxe barruko indarkeria teknikoan bi maila daude. Lehenengo mailan, euren erantzunen bidez eta izaera bereizgarriarekin (galdeketa 21. galderako 12. enuntziatuari soilik ematen zioten "sarritan" edo "batzuetan" erantzuna), gizartearen barruan ondo ez orokorra adierazi duten emakumeak, eta horiek, kulturalki, beheagoko kategoria batean utzi dute etxe barruko eta familiako inguruetan garatzen diren jardueren multzoa, laneko eszenatokiak eta eremu publikoak nagusiak direlakoan. Eta, "produktzioaren paradigma" honen ondorioz eszenatoki eta rol sozialak generoaren arabera esleitzen direnez, gizona-publikoa eta emakumea-pribatua bereizketak etxearen nahiz familiaren arloan egindako jarduerak gizartean txarrago baloratuta egoitea eragiten du.<sup>3</sup>

Ikerketa honetan, bidezkotzat jo dugu etxe barruan egindako lanaren baloraziorik ezaren irain hori (gure kulturaren sustraitua) emakumeen aurkako indarkeriaren beste adierazpentzat hartzea, tratu txar teknikoaren sailkapenaren barruan.

Bigarren mailan, modu berezian aztertu

<sup>3</sup> Horri dagokionez, MURILLO, S. autorearen *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio* lana (Siglo XXI. Madril. 1996) funtsezko erreferentzia da, etxe barrukoaren zehaztapenak sortzen duen kultura egitura ezagutzeko, gizartean oraindik ere balorazio urria duen harreman-eszenatokitaz; horren ondorioz, balorazio hori generorantz (emakumeak) hedatzen da, emakumeen generoa baitago arlo horren barruan sartuta

behar dira, euren burua tratu txarren jasotzailatzat hartu ez arren, beste indarkeria egoera bat edo batzuk jasaten dituzten emakumeak ("ez du baloratzen egiten duen lana" –21. or. 12– egoera jasota edo jaso gabe), "sarritan" edo "batzuetan" kategorietan. Hementxe kokatzen da "tratu txar tekniko zentzu zorrotzean" sailkapena; hau da, adierazitako tratu txarraren taldean aipaturiko egoeretatik apur bat hurbilago dauden emakumeak dira eta horien taldea, gero adierazitako dugunez, benetako arrisku taldea izan daiteke, esan baitute adierazitako tratu txarraren mugak dauden egoerak jasaten ari direla gaur egun.

<sup>4</sup> Oso sakonak izateko asmorik gabe, honako ikerketa hauek aipatu nahi ditugu: LA CAIXA FUNDAZIOA. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Inés Alberdik eta Natalia Matasek egindako txostena.artzelona. 2002; CORSÍ, J. (KOORD.). *Maltrato y abuso en el ámbito doméstico*. Paidós.artzelona. 2003; CENTRO REINA SOFÍA PARA EL ESTUDIO DE LA VIOLENCIA. *La violencia contra la mujer en el espacio discursivo público*. 2005; baita Estatuan (Justizia Ministerioko Etxeko Indarkeriaren aurkako Behatokiak eta Ikerketa soziologikoen Zentroa) eta EAEn ere (Eusko Jauriaritzako Herrizaingo Saila, Etxeko Tratu Txarren eta Eraso Sexualen Biktimei Laguntza Psikologikoa emateko Programen Memoriak, EUSKO JAURLARITZAKO IKERKETA SOZIOLOGIKOEN BULEGOA. *Bikotekidearen tratu txarrak*. 1998ko otsailako txostena; edo ARARTEKOaren txostena. *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikuspegi instituzionala EAEn*. Gasteiz, 2003).

Aurrerago esango denez, honako hauen lanak ikerketa aplikatu honen oinarritzko erreferente kontzeptualak izan dira: EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Gasteiz (2005eko maiatzean gaurkotuta); eta IBÁÑEZ GONZÁLEZ, M. *Etxeko indarkeria Euskadin: emakumeari emandako tratu txarrak. Tratu txarreko harreman bat apurtzeko prozesuaren azterketa eta definizioa*. Eusko Jauriaritza. Lehendakaritza. 2004.

<sup>5</sup> Erasokortasuna eta indarkeria bereizteari buruz, ikusi honako hauek: SANMARTIN J. "Las raíces de la violencia" artikulua. *Revista Debats*, 2000, nos, 70/71, (Monografikoa "Violencia"), 7-17. or., eta horren *La violencia y sus claves* liburua. Ariel.artzelona. 2002. Era berean, FARNÓS, T. "Las raíces psicosociales y culturales de la violencia." *Documentación Social*, (Monografikoa. "Violencia y Sociedad"), 2003, apirila-abendua, 131. zenbakia, 11-30. or., eta SANMARTIN J. (KOORD.) *El laberinto de la violencia*. Ariel.artzelona. 2004.

Gure iritzian, NORBERT ELIAS autorearen lanaren zati handi bat eta, hain zuzen ere, *El proceso de civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas* (Mexiko. 1987) indarkeriara fenomeno sozial eta kulturaltzat egindako hurbilketa nagusienetarikoa da, eta horren oraingo adierazpenak interpretatzeko elementuak eskaintzen ditu.

<sup>6</sup> MARTIN SERRANO, M.: *Violencia y Juventud I*. Madril. Gazteriaren Institutua. 1994.

<sup>7</sup> "Etxeko" hitza eta emakumeen aurkako indarkeria adierazpidea ("generoko indarkeria" adierazpidearen ordezt) erabiltzea bidezkoa izatearen inguruko eztabaidei buruzko hausnarketa batzuk EMAKUNDEREN *Emakumeen aurkako indarkeria* testuan (3. orrialdean eta hurrengo orrialdeetan) ikusten dira, baita IBÁÑEZ GONZÁLEZ, M. autorearen *Violencia doméstica en Euskadi: malos tratos a la mujer* liburuan ere (36. orrialdean eta hurrengo orrialdeetan).

<sup>8</sup> EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. 8. or. (geuk egindako enfasia).

### 3.2.3. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren bost tipologia

Ikerketa hau oso enpirikoa izan arren, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko oraingo eztabaida teoriko eta metodologiko nagusiak ere ezagutu nahi izan ditugu. Horren zergati nagusia honako hau da: ikerketaren helburuak ahalik eta gehien zehaztea, eta hori, berriz, informazioaren bilketan eta horren azterketan<sup>4</sup> ikusten da.

Indarkeria fenomenoaren konplexutasuna eta erasokortasuna eta indarkeria bereiztu beharra funtsekoak izaten dira, eta bertan bat egiten dute ikuspegi soziologikoen, pedagogikoen, filosofikoen, psikologikoen eta abarrek<sup>5</sup>. Emakumeen aurkako indarkeria, izan ere, indarkeriak gure gizarteetan duen presentziaren adierazpenetarikoa bat da. Beraz, onartu egiten dugu Martín Serranok indarkeriari buruz emandako definizio hau: "*beste pertsona bati min fisikoa edota ahozkoa (horren osotasun fisikoan edo ondasunetan) eragiteko bideratzen diren ekintza sozial guztiak, oinarritzko (etxe barruan) edo bigarren mailako (ikastetxeetan, aisialdiko lekuetan, lantokietan, etab.) eszenatokietan garatzen direnak; horien eragileak banakakoak edo taldeak izan daitezke, eta azken horiek antolaketa eta egonkortasun maila desberdinak dituzte*"<sup>6</sup>.

Horrenbestez, ikusten da emakumeen aurkako indarkeria oso fenomeno zabala dela, eta horren inguruko eszenatoki eta jarduketaren eremu asko daudela; ikerketa honetan, berriz, ekintza sozial bortitz horien adierazpen jakinean oinarrituko gara; horiek eremu jakinean gauzatzen dira, etxe barruan. Eta etxe barruan adierazpidea zentzu zabalean ulertzen da; izan ere, horren barruan, etxe beraren barruko bizikidetzaren gunean garaturiko harreman afektiboak eta familia harremanak ez ezik (oinarritzko eszenatokia, Martín Serranok dioenez), egoitza muga horretatik kanpo garatzen diren harreman afektiboak edota sentimentalak ere sartzen dira.<sup>7</sup>

Beraz, ados gaude Emakunde emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruz oraintsu emandako definizioarekin: "*emakumei kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edota psikologikoa eragiten dieten edozein egite edo ez-egite, kontrolero jokabide edo mehatxu, familia harremanetan edota harreman afektiboetan (oraingoa edo lehenagokoa) gertatzen dena eta sarritan eta modu iraunkorrean jazotzen dena*"<sup>8</sup>.

Ikusten denez, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren aterkiaren azpian tratatu txarren mota desberdinak sartzen dira. Emakumearen Institutuak egindako bi ikerketetan sei (6) indarkeria mota adierazi ziren: fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa, estrukturala eta espirituala. Tipologia horren emaitzak aztertu ondoren (bate-tik), eta arloari buruzko bibliografia ikuskaturikoan (bestetik), azkenik, bost (5) tipologia ondorioztatu ziren, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren arloan. Horiek oraintxe azalduko ditugu.

### 3.2.3.1. Indarkeria fisikoa

Ezustekoa ez den edozein egintza edo jokabide, emakumeari min fisikoa egiten diona edo egin ahal diona (sakatu, jo, erre, gauzak jaurtiki, armak erabili, mozketak egin, etab.).

### 3.2.3.2. Indarkeria sexuala

Ezustekoa ez den edozein jokabide edo egintza sexual, emakumearen borondatearen aurka egiten dena.

### 3.2.3.3. Indarkeria ekonomikoa

Ezustekoa ez den edozein jokabide edo egintza, emakumeari informazioa lortzea edo dirua lortzea oztopatzen diona, egindako gastuen kontrola eragiten duenenean, baita dirua alferriki gastatzea ere, bizikidetzaren harremanaren edota unitatearen beharrezanaren kaltetan.

### 3.2.3.4. Indarkeria psikologikoa

Ezustekoa ez den ahozko edozein jokabide edo egintza, emakumearen banakako nortasuna gutxisterra bideratzen dena (irainak, mehatxuak, egintzen gutxiespena, sinesmenen nahiz iritzien gutxiespena, etab.).

### 3.2.3.5. Indarkeria soziala

Ezustekoa ez den ahozko edozein jokabide edo egintza, emakumearen banakako nortasuna "jendaurrean" gutxiesteko egiten dena, baita emakumea isolatzeko edo horren autonomia murrizteko egiten dena ere, harreman sozialen garapenean: familia, lagunak, auzokoak, elkartzetara eta lana.

Ikerketa aplikatu honetan bost tipologia horiek erabiltzeko aukera ematen du EAEn eremuan egindako oraintsuko ikerketek (lehen aipatutakoak) ezarritako lan ildoarekin jarraitzeko, eta

ikerketa horiek bost tipologiaren zehaztapenerako oinarritzat hartu dira.<sup>9</sup>

Agerikoa da tipologia horien arteko mugak, praktikan, oso estuak izan daitezkeela. Horrela, indarkeria sexuala estu lotuta dago indarkeria fisikoa; indarkeria psikologikoa indarkeria fisikoa ekar dezake; indarkeria sozialak kalte psikologikoa eragin ahal dio emakumeari, indarkeria ekonomikoaren kasuan bezala, eta beste konbinazio asko eta asko egin daitezke, betiere errealitatean oinarrituz. Baina ikerketa honetan ez dugu ahaztu (funtsezko ikuspegia baita) bost tipologia horiek "oinarri kultural" berean sustraiturik daudela; horrek oraingo egoera eta generoen arteko harremanen errepikapena eragiten du, Bizkaikoa bezalako mendebaldeko gizarteen eta ongizate gizarteen testuinguruan. Hortaz, emakumeen aurkako etxe barruko oinarri kulturalerako indarkeria horren eguneroko adierazpenak identifikatzea izan da ikerketa honetan erabilitako bost tipologiaren helburu nagusia.

### 3.2.4. Emakumeen aurkako indarkeria egoerak Bizkaiko eguneroko bizitzan duten presentzia sozialaren mailaren ezagupena eta beste interes batzuk

Atal honen izenburuan adierazten denez, ikerketa honek hiru alderdi oso zehatzen emaitzak eskaintzen ditu. Alde batetik, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak zituzten harremanak apurtzearen ondorioak biltzen dira, biktimek eurek adierazitakoaren arabera.

Hala ere, banakako maila hori osatu egiten da maila sozialera edo orokorrera garamatzaten emaitzen bidez; izan ere, oraingoan, Bizkaian bizi diren emakumeei dagokienez, bi gertaerei dagozkien emaitzak lortu dira: alde batetik, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari loturiko harremanen mantentzearen eragina duten faktore nagusiak, eta bestetik, inguru hurbilean (familia, laguntzak, auzokoak eta lanekoak) halako egoerei buruz dagoen ezagupen maila.

Azken maila hori oso garrantzitsua da; izan ere, ikerketaren emaitzetan Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak

<sup>9</sup> EMAKUNDEAREN *Emakumeen aurkako indarkeria* (8-9. or.) eta IBÁÑEZ GONZÁLEZ, M. autorearen *Violencia doméstica en Euskadi: malos tratos a la mujer* (40-43. or.) lanei buruz ari gara.

*gizartean duten presentzia* islatzen da lehenengo. Hala eta guztiz ere, izaera aurrendaria ez ezik, izaera sozialaren adierazle horren gauzarik garrantzitsuenaren ezinbesteko osagarria izatea da, identifikaturiko banakako kasuak identifikatzeko, fenomenoaren "testuinguruan" txertatuz, eta horrek bere "oinarri kulturalera" garamatza berriro.

### 3.3. LAGINAREN SEGMENTAZIO ALDAGAIK

Bizkaiko Generoko Indarkeriaren Behatokiaren 2004ko *Jardueren Memoria* erreferentziaz hartuta (Lurrealde Historikoko udalerriak 4 tipologiari banatzen dira, biztanle kopuruaren arabera), etapa anitzeko laginketa mota egitea erabaki dugu, bigarren mailako unitateak (udalerriak tipologia bakoitzaren arabera) eta azken unitateak (emakumeak) ausaz aukeratuta.

Laginean (estatistikoki adierazgarria) 601 inkesta sartu dira. Lagin horren estatistika akatsaren muga  $\pm 4\%$ koa da, %95eko eta 50/50eko konfiantza mailarako.

Banaketa, halaber, tipologia bakoitzaren biztanle kopuruarekiko proportzionala izan zen.

- 1. tipologia (50.000 biztanle gorako udalerriak): 317 inkesta.
- 2. tipologia (20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerriak): 121 inkesta.
- 3. tipologia (5.001 eta 20.000 biztanleko udalerriak): 105 inkesta.
- 4. tipologia (0 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriak): 58 inkesta.

Udalerriak biztanle kopuruaren arabera tipologiari banatzeko metodoa, bestalde, Emakumearen Institutuari ere erabili zuen. Jakina, ikerketa honetan Bizkaiko udalerrietako biztanle kopuruarekiko egokitzapena egin da.

Laginketan bigarren mailako unitateei dagokienez egin den sailkapen hori aintzat hartuta (udalerrien tipologiaren araberrako sailkapena), gauza batzuk zehaztu behar dira azken unitateen (emakumeak) hautapenari buruz. Horretarako, tipologia bakoitzaren barruan *laginaren adierazgarritasuna* (adinaren aldetik) *Bizkaiko Lurrealde Historikoko adin egiturarekiko proportzionala* izatea erabaki zen.

Hasierako baldintza horretan oinarrituz, eta Emakumearen Institutuari ikerketetan erabiltzeko banaketari eta adin erlazioari jarraituz (bizi-

zikloa adierazten duten gertakariekin), oso estandarrak ziren bost adin talde zehaztu ziren: 18-29 urte (gazteak), 30-39 urte (heldu gazteak), 40-49 urte (helduak), 50-64 urte (heldu-helduak) eta 60 urte edo gehiago (hirugarren eta laugarren adina).

Emakumeak euren etxebizitzetan aurkitu direla kontuan hartuta, esan behar da telefono deien banaketa *ordu-zerrenda desberdinetan* egin direla. Horrela, emakume aniztasun handia aurkitu zen, eta ez gehienetan etxean egoten direnak bakarrik, esate baterako, etxeandreak.

Azkenik, proposamen metodologikotzat, telefonozko aurre-testa egin zen, landa lan osoa egitearen aurretiazko estrategiazat. Horrela, hasieran diseinaturiko galdeketa "testa" egin nahi zen; hau da, jakin nahi zen ea hasieran ezarritako galdeketa galderen osaketa, ordena, idazketa eta ulermena egokienak ote ziren, erantzunen ahalzko aniztasuna kontuan hartuta. Orokorrean, aurre-testaren erantzunek balioztatu egin zuten hasierako galdeketa, eta aldaketa gutxi batzuk baino ez ziren egin behar izan.

### 3.4. LANDA-LANA: IRUZKINAK

Ikerketak hiru hilabete inguruko iraupena izan zuen; lehenengo hilabetean, 2005eko urrian, landa lana egin zen. Bizkaiko emakumeekin (ikerketan parte hartu duten emakumeak) izandako harreman zuzenetik ondorio asko atera daitezke, are gehiago ikerketaren helburua aintzat hartuta. Baina alderdi horien gainera, nabarmendu egin behar da emakumeek telefonozko galdeketa erantzutearen aldeko jarrera izan dutela, hasieran erantzun maila hain ona izango ez zela uste genuen arren. Horrek ez dio zailtasunik kentzen landa lanari, batez ere emakumearen adina eta bizilekua kontuan hartuta, baina indartu egin da beste ikerketa aplikatu batzuetan egiaztatu den gauza bat: hiritarregana errazago iristen dela telefonoz "in situ" baino.

Gainera, aipagarria da "giro sozial egokia" egotea, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren gaiari dagokionez. Gaurkotasan handiko gaia da eta muga pribatuak gainditzen hasi da, eta orain fenomeno publikoa da. Eta fenomenoaren ikusgarritasun sozial horrek, zenbait kasutan, harritu egin gaitu; izan ere, adierazitako tratu txarraren taldearen barruko emakume batzuek

euren esperientzien alderdi oso bereziak jakinarazi dituzte; telefonotik egindako jakinarazpen horrek, talde teknikoaren lan ona albo batera utzita, agerian jartzen du euren bizipenak komentatu eta jakinarazi beharra dutela.

Hala ere, landa lanean aurkitu ditugun zailtasun nagusiak hiru dira. Lehenengo eta behin, emakumeen adin talderik gazteenaren (18-29 urte) partaidetza lortzea izan da zailena, eta hori ulergarria da, euren eguneroko bizimodua lan-eszenatokitara, ikasketetara eta abarrera orientaturik baitago. Horrenbestez, horien partaidetza lortzeko unerik egokienak arratsaldeak eta iluntzeak izan dira, laginean ezarritako adin kuotei jarraituz.

Adin talderik gazteenaren partaidetza oraindik ere zailagoa izan da udalerrri txikietan. Hala eta guztiz ere, udalerrriaren biztanle kopuruak garrantzi handiagoa izan du (oztopotzat) soziologikoki garrantzizkoagoa den ikuspegi batetik: biztanle kopururik txikieneko emakumeek uste dute emakumeen aurkako indarkeria ("tratu txarrrak", ohiko adierazpidea erabiliz) "hiriburuan" gertatzen direla, herri handietan, alegia. Horrela, "hemen ez da halako gauzarik gertatzen" edo "hemen denok ezagutzen dugu elkar" bezalako iritziak oso ohikoak izan dira Bizkaiko udalerrri txikietako emakumeen artean; zalantzarik gabe, lan hipotesizat mantentzen dugu irudi sozial horrek, aldagai kultural horrek, oztopatu egin dezakeela emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasu gehiagoren identifikazioa, udalerrri txikietan.

Landa lanean aurkitu den hirugarren zailtasuna metodologikoa izan da: galdeketa 24. galderan emakumeei galdetu zaie ea azken bi urteotan zein neurritan sentitu diren "tratu txarren jasotzaile" (galderari baieztoko erantzuna emateak "adierazitako tratu txarra" identifikatzen baitzuen), eta ikusi dugu *tratu txar esamoldea indarkeria fisikoarekin lotzen* dutela zuzen-zuzen. Horrenbestez, esamolde horrek eratzikopen edo esangura sozial berezia dauka, eta bertan, dirudenez ez dira sartzen tratu txarren gainerako tipologia, hau da, sexuala, soziala, ekonomikoa eta indarkeria psikologikoa (azken batean, geure eguneroko bizitzan presentziarik handiena duena). Hortaz, aurrerago egiten diren ikerketetan aldatu edo murriztu egin beharko da *tratu txar* adierazpidea, eta, horren ordez, indarkeriaren inguruan dauden tipologia guztiak hobeto adierazteko gauza den besteren bat erabili beharko da.

### 3.5. IKERKETAREN IRISMENARI BURUZ

Ikerketa honen metodologiari eta emaitzei garrantzia kentzeko inolako asmorik gabe, gure iritziak, ikerketan aurkitu ditugun beste zailtasun batzuk adierazi behar dira, are gehiago aintzat hartuta gai honek irakurmen eta interpretazio asko izan ditzakeela.

Jakina da emakumeen aurkako indarkeriari eta, hain zuzen ere, etxe barruko indarkeriari buruzko ikerketek zailtasun handiak izaten dituztela. Ikerketa aplikatuen urritasuna horren adierazgarria da. Halako errealitateak ezagutzeko ikerketa estrategiak errealak dira, baina oraindik ere ikusezintasun sozialaren eta izaera pribatukoak izatearen eraginpean daude, harreman afektiboak edota sentimentalei dagokienez; horrenbestez, berez ere estrategia mugatuak dira.

Ikerketa bakoitzak helburu jakinak izaten ditu, eta honen helburu nagusia emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak (Bizkaian, gaur egun) aurkitzeko (ez bilatzeko) prozesu metodologikorik egokiena ezartzea izan da. Eta, helburu hori betetzeko, telefonozko galdeketa bidezko iritzi-zundaketa, zalantzarik gabe, aukerarik egingarriena eta egokiena izan da. Oraingoan, eta beste ikerketa batzuen kasuan ez bezala, ez zegoen aurretiaz adierazitako (adibidez, salaketen bidez edo baliabide sozialetan lagundutako tratu txarren kasuak ezagutzeko beste modu batzuen bitartez) etxe barruko tratu txarra jasan zuen emakume talderik, horretan oinarrituz beste estrategia kualitatiboak eta kuantitatiboak garatu ahal izateko, eta horrela, egoera eta arazo nagusietan sakondu ahal izateko; aldiz, beharrezkoa izan da talde hori aurkitzea eta identifikatzea, bai zuzenean eta bai zeharka, Bizkaian bizi diren emakume guztien artean.

Ikerketa honen berezko beste zailtasun bat ere ageri-agerikoa da: etxe barruko ekintza bat *indarkeriakotzat hartzea*. Hori, batez ere, bi elementutan euskarritu da: ikerketan parte hartu duen emakume bakoitzaren pertzepzioa eta ikerketa taldeak horri buruz egindako tipifikazio teknikoak.


Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak gaur egun ere gertatzen dira (eta hori agerian jarri dute ikerketa honen emaitzek, komunikabideetan agertzen diren kasuek eta laguntzako baliabideetako adierazleek, besteak beste), baina

egoera horiekiko *"onarpen mugak"* desberdinak dira, harreman afektiboa edota sentimentala duten pertsonen ezarritako joko-arauak ere desberdinak diren bezala, harreman horren formalizazio maila edozein delarik ere. Hori oso arazotsua da, "indarkeria psikologikoa" deritzon tipologian sartzen diren ekintzen kasuan.

Garaturiko prozesu metodologiko osoan, batez ere ikerketaren lanketa teknikoari (telefo-

nozko galdeketa) eta horrek informazio bilketan izandako garapenari dagokionez (entzute-ingurua eta enpatia sustatuz, inkestan parte hartu duten emakumeekin), murriztu egin nahi izan dira ikerketaren zailtasunak. Metodologiaren aldetik zorrotza den halako ikerketa baten garapena, gainera, ondoren datozen emaitzen baliozko-tasuna, adierazgarritasuna eta objektibotasuna euskarritzeko dagoen baliabide bakarra da.





## IV. kapitulua

Emakumeen aurkako  
etxe barruko indarkeria  
Bizkaiko Lurralde  
Historikoan:  
Emaitzen azterketa



## 4. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN: EMAITZEN AZTERKETA

Kapitulu honetan, Bizkaian bizi diren emakumei telefonozko galdeketaren bidez egindako informazio bilketa zuzenean lorturiko emaitzen azterketa egiten da.

Emaizten azterketa tauletan edota grafikoetan adierazten da, eta horiek emaitzak hobeto ikuskatzeko aukera ematen dute. Gainera, azterketan hiru emakume taldeen arabera bereizten dira emaitzak: *adierazitako tratu txarra, tratu txar teknikoa eta Bizkaiko emakume guztiak*. Bereizte hirukoitz horri esker, ikerketan emakume talde bakoitzaren ezaugarri soziodemografikoen konparazio-ikuspegiaren azterketa sartzen da, baita horri eragindako indarkeria egoerak nahiz tipologiak eta euren inguru hurbilean halako kasuei buruz dagoen ezagupen maila ere, eta halako kasuei laguntza emateko dauden baliabideen ezagupena ere bai (erakunde mailako baliabideak eta beste batzuk).

Era berean, *adierazitako tratu txarraren* barruan dauden emakumeen taldearen eta *tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean* dagoen taldearen azterketa espezifiko egin da, harreman afektibo edota sentimentala etxe barruko indarkeriaren eraginez apurto zuten emakumeen taldea ahaztu barik.

### 4.1. OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Atal honetan, ikerketan lau emaitza nagusiak azaltzen ditugu. Honako hauek dira:

- Bizkaian bizi diren emakumeen %5,2k diote etxe barruko indarkeria egoerak bizi izan dituztela azken bi urteotan (adierazitako tratu txarraren taldea).

- Bizkaian bizi diren emakume guztien %25,5ek diote sarritan edo batzuetan jasaten dituztela galdeketa adierazitako emakumeen aurkako etxe barruko hamalau indarkeria egoerarikoren bat (tratu txar teknikoa).

- Bizkaian bizi diren emakume guztien %13,3k diote sarritan edo batzuetan jasaten dituztela galdeketa adierazitako emakumeen aurkako etxe barruko hamalau indarkeria egoere-

tariko bat, hain zuzen ere, "ez du baloratzen egingo dako lana" deritzona (21. or. 12).

- Bizkaian bizi diren emakumeen %18k diote inguru hurbilean ezagutzen dituztela emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak.

### 4.2. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerari buruzko oinarritzko lau adierazleak azaldu ondoren (ikerketa honetan identifikaturikoak), sei aldagai soziodemografikoen emaitzen azterketa azalduko dugu: adin taldeak, bizikidetzaren egoera, egoera ekonomikoa eta soziala (bikote harremana, egoera zibila, bizikidetzaren gunea edo eredia, bertarako ekarpen ekonomikoa eta maila sozial subjektiboa ere barne), ikasketaren maila, lan egoera (aktiboak eta ez-aktiboak), jaiotza lekua eta, azkenik, bizilekua, Bizkaiko udalerrien tipologiaren arabera.

#### 4.2.1. Adin taldeak

Gogoratu behar da ikerketan parte hartu duten emakumeen lagina hautatzeko irizpide nagusienetarikoa bat Bizkaian 2001ean bizi ziren emakumeen multzoaren adin egituraren oinarrituz finkatu zela. Horrenbestez, ikerketa honetan emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuek adin taldeen arabera duten banaketak *konparazioko irizpide objektiboak* ezartzeko aukera ematen du, Bizkaiko emakume guztien emaitzari dagokionez, eta hori ez da gertatzen gainerako aldagai soziodemografikoen kasuan. Hala ere, horien hautapenaren ausazkotasuna Bizkaian bizi diren emakumeen errealitateari hurbildu beharko litzateke.


Emakumeen adinaren arabeko egitura, izan ere, azalpenezko aldagai garrantzitsua da ikerketa honetan. Hala eta guztiz ere, azterketa demografikoaren maila honek osagai soziologikoa behar du, modu egokiagoan interpretatu ahal izateko.

Aurrerago adieraziko diren alderdien aurreapena eginez, emakumeen adina handiagoa den neurrian etxe barruko indarkeria kasuak aurkitzeko aukera handiagoa da, eta hori gaiari buruzko ikerketa guztiek berretsi dute. Izan ere, halako kasuak bizikidetzaren egoerari lotuta daude (bikotearekin bizi) eta jokabide hori (elkarrekin bizitzea edo bizikidetzaren unitatea sortzea) ohikoa da gure bizitzan.

Planteamendu hori aintzat hartuta, 1. grafikoan ikerketa honen emaitza garrantzitsuene-

tariko bat dago: adinen egituraren eta bizitza-ibilbidearen eragina modu partzialean bakarrik berresten du, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerei dagokionez. Planteamendu honek berresten duen zatia tratu txar teknikoaren barruko emakumeei buruzkoa da; izan ere, adin nagusiagoan jarraibidea berriro agertzen da, eta bertan dago kasurik gehien, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera bat (gutxienez) egoteari dagokionez.

1. grafikoa. Adin taldeak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



Etxe barruko indarkeria egoerak jasaten dituzten Bizkaiko emakumeen eta Bizkaiko emakume multzoak adin taldearen arabera duen osaketaren arteko identifikazioan dagoen paralelismo hori, hala ere, apurtu egiten da azken bi urteotan adierazitako tratu txarren multzoan dauden kasuen artean. Izan ere, talde horretan kokatzen da ikerketa honen emaitzen berezitasuna, adin taldeen araberako banaketaren aldetik. Berezitasun hori hiru alderdik eraten dute: lehenengo eta behin, 50-64 urte bitarteko adin taldean eta 65 urteko edo gehiagoko adin taldean tratu txarren kasuen ehuneko bera biltzen da, %25,8; hala ere, Bizkaiko emakume guztien eta ikerketa honetan inkestaturiko emakume guztien %21,5 sartzen dira talde horretan. Horrenbestez, berari dagokionak baino

etxe barruko indarkeria egoera gehiago dago talde horretan, taldeak Bizkaiko emakumeen multzoaren adin-egituraren duen garrantzia aintzat hartuta.

Bigarrenez, eta beste muturrean, 30-39 urte bitarteko emakumeen taldeak ehunekorik txikiena dauka, adierazitako tratu txarren aldetik, hain zuzen ere, detektaturiko kasu guztien %9,7, eta maila hori askoz ere txikiagoa da, taldeari Bizkaiko emakumeen adin-egituraren dagokion ehunekoari dagokionez (%17,6).

Hirugarrenez, azkenik, eta agian adierazlerik adierazgarriena izanik, 1. grafikoan ikusten den bezala, 18-29 urteko adin taldean Bizkaian azken bi urteotan etxe barruan indarkeria egoerak jasaten dituzten emakume guztien %19,4 sartzen da. Ehuneko hori 40-49 urte bitarteko taldeen parean

kokatzen da, eta gainera, argi eta garbi gainditzen du 30-39 urte bitarteko emakumeen taldea, adierazitako tratu txarra jasateari dagokionez; era berean, berari dagokiona baino ehuneko askoz ere handiago dauka, Lurralde Historikoko emakumeen adin-egituran dagokiona baino (%15,3).

Adin-talderik gazteena den horri erreparratzen jarraituta ikusten denez (1976 eta 1987 bitartean jaiotako emakumeak), tratu txar teknikoa talde horren guztizkoaren %5,9ra baino ez da iristen, eta beraz, ehuneko hori talde horrek adin egituran duen garrantzia (%15,3) baino askoz ere beherago dago.

Zein dira horren guztiaren eragileak? Ikerketan ondorioztaturikoaren arabera, esan daiteke belaunaldi mailako faktoreak direla eragileak, eta beraz, sozializazio eta hezkuntza mailako elementuak aipatu behar dira, Bizkaiko 18-29 urte bitarteko emakume taldeari dagokionez. Hipotesizat, esan daiteke gure gizartean onarpen maila txikiagoko emakumeen belaunaldia dagoela, ekintza sexistei dagokionez; emakumeen belaunaldi hori sozializatu duen testuinguru sozialean, oso sustraiturik daude berdintasuna eta generoaren araberako diskriminazio eza bezalako balioak. Beste belaunaldi batzuetako emakumeen kasuan ez bezala (horien amak eta

amonak), edozein solaskideri errazago adierazten diote etxe barruko indarkeria egoeren presentzia.


#### 4.2.2. Egoera ekonomikoa, soziala (edo mailakoa) eta bizikidetzakoa

Atal honetan, ikerketan aztertutako emakumeen aurkako indarkeria egoerak gertatzeko eremuaren ezaugarri nagusiak ikusten dira. Bikotekidea edukitzearen edo ez edukitzearen ezagupena, horrekiko harreman mota, emakumearen bizikidetzaren eredu, egoera zibila, seme-alaben batez besteko kopurua nahiz horien adina, bizikidetzaren gunera egindako ekarpen ekonomikoa nagusiaren jatorria eta posizio soziala edo maila subjektiboa, hortaz, aztertzen ari diren emakumeen hiru taldeen ohiko profila mugatzeko aukera ematen duten adierazleak dira: adierazitako tratu txarra, tratu txar teknikoa eta Bizkaiko emakumeen guztizkoa.

##### 4.2.2.1. Bikote harremana

Bikotekidearekiko bizikidetzaren, izan ere, Bizkaiko emakumeen arteko bizikidetzaren eredurik ohikoena da; izan ere, euren %65,1ek bikotekidea dute eta berarekin bizi dira. 2. grafikoan ikusten denez, bizikidetzaren jarraibide hori nagusia da ikerketan honetan aztertu diren hiru emakume taldeetan.

2. grafikoa. Bikotekideen arteko harremana eta bizikidetzaren, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005



Horrenbestez, jakina, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren ehunekorik handiena "baterako edo bikotekidearekiko bizikidetza eredu" horretan biltzen da, bai azken bi urteotan tratu txarrak izan dituztela adierazi duten emakumeen taldeari dagokionez (guztizkoaren %58,1), bai (batik bat) tratu txar teknikoaren taldearen barruan daudenei dagokienez (%91,5).

Euren erantzunetan maila desberdineko tratu txarreko egoeren presentzia adierazi duten hamar emakumetik bederatzai baino gehiago bikotekidearekiko bizikidetza ereduaren barruan daude, eta beraz, esan daiteke lotura estua dagoela bizikidetza ereduaren eta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren sorreraren artean. Izan ere, ikerketa honek etxe barruko eremu horren inguruan dauden harreman sozialetan aurkitu nahi ditu emakumeen aurkako indarkeria egoerak. Hala ere, badirudi etxe barruan garatzen diren harreman sozialen eredu bera ere arrisku faktorea dela. Gainera, horri harremanen iraupenaren aldagaia batuz gero, arrisku hori nabarmendu egiten da; izan ere, emaitzek agerian jarri dutenez, oraingo bikotekidearekiko harremanaren batez besteko iraupena 29,49 urtekoa da, tratu txar teknikoetat harturiko talderako, eta horrek gaintitu egiten ditu adierazitako tratu txarren barruko emakume taldearen urte kopurua (25,62 urte) eta Bizkaiko emakumeen guztizkoaren urte kopurua (24,20 urte).

Interpretazio lerro horretan kokatzen da 2. grafikoan aipatu beharreko gertaerekiko azkena: adierazitako tratu txarren taldean sartzen diren emakumeen %32,3k "orain ez dauka bikotekiderik". Horrek agerian jartzen du emakume horien aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentzia, ez orain, baina bai iragan nahiko hurbilean. Gainera, indarkeriaren eragilea "bikotekide ohia" zen, eta, hortik ondorioztatzen denez, harreman afektibo hori apurtzean nolabaiteko eragina izan zuen indarkeria egoeren presentziak; beste kasu batzuetan, berriz, bikotekide hori hil egin da.


Gure ustez, orain hobeto ulertzen da adierazitako tratu txarren taldeak oraingo bikotekidearekin duen bizikidetza ehuneko Bizkaiko emakume guztien ehuneko baino nahiko baxuagoa izatea (%58,1 eta %65,1 hurrenez hurren); izan ere, azken horretan ez dira aintzat hartzen adierazitako tratu txarren taldearen barrukoak diren eta orain bikotekiderik ez duten emakumeak.

Hurrengo atalean ikusten denez, hiru bizikidetza eredu horiek estu lotuta daude emakume horien oraingo egoera zibilerako.

#### 4.2.2.2. Egoera zibila

3. grafikoaren emaitzak bizikidetza ereduari buruzko datuen osagarri egokienak dira. Horrela, tratu txar teknikoaren taldearen barruko emakume guztien %85,6 "ezkonduta" daude.

3. grafikoa. Egoera zibila, emakume taldearen arabera. Ehunekoak. 2005.



Eta, ezkontzea Bizkaiko emakumeen egoera zibilik ohikoena izan arren (guztizkoaren %57,6), agerian dago egoera zibil hori duten emakumeen artean tratu txar teknikoari loturiko egoeren presentzia handiagoa dagoela

Ildo horretan, eta lehen bizikidetzak emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikaziorako arrisku handiagoa sortzeari buruz esandakoa indartzuz, adierazgarria da tratu txar teknikoak emakume "ezkongabeen" artean duen presentzia urria (%7,2), kontuan hartuta talde horretako emakumeak Bizkaiko emakume guztien %23 direla. Hori estu lotuta dago aurrerago adieraziko dugun alderdiarekin: senarraren edota bikotekidearen protagonismoa, tratu txarraren eragile nagusizat.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, 3. grafikoan ikusten denez, agerian dago egoera zibil batetik besterako aldaketa, Bizkaian bizi eta etxe barruko tratu txarrak izan dituzten emakumeen kasuan. Horrela, emakume talde horren barruan ehunekorik handiena emakume ezkonduak eduki arren (%45,2), ehuneko hori nahiko txikiagoa da emakume ezkonduen ehunekoak (Bizkaiko emakume guztiei dagokienez) eta, batak bat, tratu txar teknikoaren taldearen barruko emakumeen ehunekoak baino.

Aldiz (emakume talde horren egoera zibilean identifikaturiko deribazioa hortik dator), etxe barruko indarkeria egoerak jasan eta orain "dibortziatuta" (%3,2) eta, batez ere, "bananduta" (%16,1) dauden ehunekoak (bi kasuak batus gero %19,3) nahiko handiagoak dira beste bi taldeetan dauden emakumeen ehunekoak baino (%4,3 "dibortziatuak" eta "bananduak", Bizkaiko emakume guztiei dagokienez, eta %2,7 tratu txar teknikoak jasotzen dutenei dagokienez).


Berriro ikusten da, beraz, emakumeen aurkako indarkeria egoeren iraganeko esperientziak eragina duela egoera zibilaren aldaketan. Eta elementu hori argi eta garbi ikusten da 4. grafikoan emaitzetan; izan ere, adierazitako tratu txarraren barruko guztizkoaren %73,3k diotenez (bikotekiderik gabeak), azken urteotan baino askoz ere bali handiagoak izan dituzte, bai indarkeria egoerei teknikoki loturiko emakumeen taldeak (%52,4) eta bai Bizkaiko emakume guztien taldeak baino (%44,4).<sup>10</sup>

#### 4.2.2.3. Bizikidetzaren gunearen mota

Etxe barruko indarkeria egoerak jaso dituzten emakumeen profila

<sup>10</sup> Horri dagokionez, "adierazitako tratu txarra" taldeko emakume guztien %54,5ek eta orain bikotekiderik ez duten "tratu txar teknikoak" taldearen barruko emakumeek diote bikotekide bakarra izan dutela, eta Bizkaiko emakume guztien %70,2 dira.

4. grafikoa. Bikotekidea edo bikotekideren bat azken hamar urteotan, emakume taldearen arabera. Ehunekoak. 2005.



### 1. taula. Gaur egun etxean bizi diren pertsonak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Etxean orain bizi diren pertsonak	Emakume taldeak		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Bikotekidea	58,1	90,8	65,4
Seme-alabak	51,6	64,1	50,2
Familiako beste batzuk	22,6	12,4	22,6
Familiakoak ez diren beste pertsona batzuk	0,0	2,6	1,0
Bakarrik bizi nai	6,5	0,0	10,3


Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

\* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketak %100 baino gehiago ematen du.

trazatzen joateko aukera ematen duen beste adierazle bat 2. taulan agertzen da; izan ere, emakume horien guztizkoaren %16,1ek diote "seme-alabekin" bakarrik bizi direla. Erregistro hori, oraingoan ere, nahiko handiagoa da bizikidetzeta mota horrek beste bi taldeetan (tratu txar teknikoa eta emakume guztiak) duen garrantzia baino. Zalantzarik gabe, orain bikotekiderik ez duten emakumeak dira eta euren egoera zibila bananduen edo dibortziatuena da (seme-alabekin).

Horri dagokionez, 5. grafikoan ikusten den bezala, etxe barruko tratu txarrak adierazi dituzten emakumeen talde honen %77,4k seme-alabak dituzte, eta ehuneko hori Bizkaiko emakume guztien ehunekoaren antzekoa da (%73,9); hala eta guztiz ere, etxe barruko tratu txar teknikoaren taldean dauden emakumeen artean, seme-alabak hamarretik ia bederatzik dituzte (%89,5). Emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua 1,64koa da eta horretarako batez besteko adina 29,57 urtekoa da, inkestatu guztien kasuan.

### 5. grafikoa. Seme-alabak edukitzea, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.





Etxe barruko indarkeria egoerak sortzen zituen aurreko harremana apurtu duten emakumeen kasuan ez bezala ("seme-alabekin bakarrik" bizi diren %16,1 eta "bakarrik bizi diren" %6,5), bestelako egoera bat gertatzen da tratu txarrak adierazi eta oraindik ere horren eragilearekin bizi diren Bizkaiko emakumeen artean. Hain zuzen ere, etxean "bikotekidearekin eta seme-alabekin bakarrik" (%35,5), "bikotekidearekin bakarrik" (%19,4) eta, gainera, "bikotekidearekin eta familiako beste batzuekin" (%3,2) bizi diren emakumeen kasua da. Kasu horiek ikerketan identifikaturiko egoerarik larrienak dira, emakumeen aurkako indarkeria ekintzak ohikoak izaten baitira.

Horrenbestez, eta atal honi amaiera emateko, tratu txar teknikoaren taldeko emakumeen bizikidetza gune-motei dagokienez, 2. taulak berretsi egiten du bikotekidearekiko harremanaren eta egoera zibilaren emaitzetan adierazitakoa. Horrela, "bikotekidea eta seme-alabak" bizikidetza-ereduak talde honetan du ehunekorik handiena (ia %55), kasu guztiei dagokienez, eta Bizkaiko emakumeen kasuan ehuneko hori askoz ere txikiagoa da (%38,9). Horri lotuta, etxebizitzan baterako bizikidetza duten pertsonen batez besteko kopurua 2,92koa izan da.

2. taula. Gaur egun etxean bizi diren pertsonak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Etxean orain bizi diren pertsonak	Emakume taldeak		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Bakarrik bizi naiz	6,5		10,3
Bikotekidea bakarrik	19,4	28,1	21,1
Seme-alabak bakarrik	16,1	3,3	6,5
Familiako beste batzuk bakarrik	19,4	5,2	16,0
Familiakoak ez diren beste pertsona batzuk bakarrik			0,2
Bikotekidea eta seme-alabak	35,5	54,9	38,9
Bikotekidea eta familiako beste batzuk	3,2	2,0	1,8
Beste batzuk		6,5	5,2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

#### 4.2.2.4. Ekarpn ekonomiko nagusia bizikidetza-gunera

Bizkaiko emakumeen bizikidetza egoera ezagutzeko emaitza adierazgarrienetariko batzuk azaldu ondoren (bikotekidearekiko harremana, egoera zibila, oraingo etxebizitzan bizi diren pertsonak eta seme-alaba kopurua), batez ere etxe barruko indarkeria egoera zuzenean (adierazitakoa) edo zeharka (teknikoa) adierazi duten emakumeei dagokienez, orain harreman sozial horien arloari estuago lotuta dauden beste adierazle batzuk aipatzeko unea da: bizikidetza-gunerako ekarpn ekonomiko nagusiaren jatorria eta emakumearen posizio soziala edo maila sozial subjektiboa.


6. grafikoan, Bizkaiko emakumeen bizikidetza-gunerako ekarpn ekonomiko nagusiaren jatorria ikusten da. Alderdi nagusiak hiru dira: lehenengo eta behin, inkestaturiko emakumeak berak egiten du ekarpn ekonomiko nagusia, beraren aurkako etxe barruko indarkeria egoera izan duten kasuetan (%35,5), eta ehuneko hori Bizkaiko emakumeen guztizkoari dagokionez %21ekoa da eta tratu txar teknikoa jaso dutenen kasuan %4,6koa.

Emaitza horiek indartu egiten dituzte lehen azaldutako planteamenduak; izan ere, aukera handiagoa dago emakumeek bakarrik euskarrituriko (euskarritze ekonomikoa) bizikidetza unitateak aurkitzeko, horiek etxe barruko indarkeria egoerak jasan dituztenean.

Ildo horretan, eta aipatu beharreko bigarren gauzatat, adierazitako tratu txarraren taldearen barruko emakumeen artean, baina kasu honetan etxean tratu txarraren eragilearekin bizitzen diharduten emakumeei dagokienez bakarrik, 6. gra-

fikoan ikusten denez, halako kasuetan ez dago bikote-harreman parekiderik, ikuspegi ekonomiko-tik begiratuta, "bi kideek ez baitute erantzun bera" ematen, eta hori gainerako taldeetan %9koa baino apur bat handiagoa da.

### 6. grafikoa. Bizikidetza guneari egindako ekarpen ekonomiko nagusiaren jatorria, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



Hirugarrenez, eta azkenik, agerian dago Bizkaiko gizarteko bizikidetza egiturarik ohikoenan, bertarako ekarpen ekonomiko nagusia bikotekideak egiten duela. Argi dago jarraibide horrek ehunekorik handiena duela aztertzen ari diren hiru emakume taldeetan, baina bikotekidearen protagonismo hori (diru-sarrera ekonomikoaren aldetik duen protagonismoa) oraindik ere garrantzitsua da tratu txar teknikoaren taldearen barruko emakumeen artean, %81,0ekin, eta ehuneko hori %53,2koa da Bizkaiko emakume guztien kasuan eta %45,2koa orain tratu txarrak adierazi dituzten emakumeen kasuan.

Horrela, joeratzat, eta laburbiltzeko, esan daiteke ekarpen ekonomikoan edo diru-ekarpean parekidetasunik ez duten bizikidetza unitateetan aukera handiagoa dagoela emakumeen aurkako indarkeria teknikoa egoteko. Zalantzarik gabe, dimentsio ekonomikoak (kasu honetan,

emakumeak bikotekidearen diru-sarrera ekonomikoekiko duen mendekotasuna) ikerketa aplikatu honetan indartu egiten du emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren ahalezko efektu katalizatzailea, eta alderdi hori argiago azalduko da halako harremanak apurtzeko oztopoi buruzko atalean.

#### 4.2.2.5. Posizio soziala (maila sozial subjektiboa)

Aspalditik hona, ikerketa aplikatu batzuek aldatu egin dute hiritarrek egitura sozialean duten posizioaren ezagupenerako hurbilketa, kontuan hartuta gizarte garatuetako egitura sozialean maila ertainen aurrerapenaren eraginez egon diren aldaketak.

Geurea bezalako gizarte baten barruko maila sozialeko posizio batetik kanpoko zehaztapena konplexua izanik (hileko diru-sarreraren maila ere


berez ez baita erreferente fidagarria), eraginkorra goa da egitura sozialaren barruko posizioa pertsonari berari deribatzea, eta hortik sortu da "maila sozial subjektiboa" adierazpidea.

Geurea bezalako ongizate gizarte batek izan beharreko egitura sozial motarekin bat etorrituz, 7. grafikoan ikusten denez, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume guztien %63,7k "maila ertainekotzat" hartzen eta ikusten dute euren burua. Hala eta guztiz ere, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentziarik handiena "maila ertain-baxuko eta baxuko" emakumeen artean dago, bai adierazitako tratu txarraren taldearen barruko emakumeen kasuan (%29,0), bai tratu txar teknikoaren taldearen

barruko emakumeen kasuan (%30,1), eta ehuneko horiek zortzi puntu gorago daude Bizkaiko emakume guztien banaketatik.

Hortaz, badirudi modu subjektiboan hautemandako posizio sozial jakinak emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentzia handiagoa edo txikiagoa eragiten duela Bizkaian; izan ere, posizio sozial baxuetan adierazitako tratu txarren eta tratu txar teknikoaren kasu gehiago identifikatzen dira, eta kasu horiek, aldiz, presentzia urriagoa dute goragoko maila sozialetan. Kontuan hartu behar da maila sozial subjektiboari buruz ari garela, eta eskuartean ez daukagu posizio sozial hori berresteko beste adierazlerik.

7. grafikoa. Posizio soziala (edo maila sozial subjektiboa) emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



#### 4.2.3. Ikasketa maila

3. taulako emaitzetan, Bizkaiko emakumeen ikasketa maila adierazten da. Bertan ikusten denez, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen %42,3k "oinarriko ikasketak" ditu, eta "unibertsitateko ikasketak" (horren maila desberdinetan), berriz, emakume guztien

%21,8k dituzte. Bi adierazle horiek aditzera ematen dute gure gizartean 50 urteko batez besteko adina duen emakumearen profil jakina dagoela, hezkuntza edukitzeko arazoak zituen belaunaldikoa (are gehiago emakumeen kasuan). Halaber, emakumea gero eta hezkuntza maila altuagoak lortzen ari da.

## 3. taula. Ikasketa maila, emakume taldearen arabera. Ehunekoak. 2005.

Ikasketa maila	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Oinarrizkoak amaitu barik	16,1	10,5	9,3
Oinarrizkoak, OHO, Eskola Graduatua, oinarrizko Batxilergoa	41,9	51,0	42,3
Bigarren mailakoak (goiko Batxilergoa, BBB, UBI)	25,8	17,0	19,3
Lanbide ikasketak (L.H. I / L.H. II)	6,5	7,8	7,3
Unibertsitateko ertainak (diplomatura)	6,5	7,8	11,8
Unibertsitateko goi mailakoak (lizentziatura / doktoretza / gradu-ondokoa)	3,2	5,9	10,0
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Hala ere, Bizkaiko emakumearen hezkuntza-argazki hori gaindituta, 3. taulako emaitzek desberdintasun batzuk identifikatzeko aukera ematen digute, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerei dagokienez, emakume horien hezkuntza maila aintzat hartuta. "Oinarrizko ikasketak" dituzten emakumeek dute ehunekorik handiena, adierazitako tratu txarraren kasuan, eta ehuneko hori Bizkaiko emakume guztien ehunekoaren oso antzekoa da, hau da, %42koa. Hala eta guztiz ere, etxe barruko indarkeria egoerak jasaten dituzten emakume hauen taldean bi berezitasun daude, Bizkaiko emakume guztiei dagokienez; izan ere, kasuen presentzia handiagoa dago ikasketarik gabeko emakumeen artean (%16,1) eta, batez ere, bigarren mailako ikasketak (lanbidekoak ez direnak) dituzten emakumeen artean (%25,8).

Aldiz, tratu txar teknikoari loturiko egoerak jasaten dituzten emakumeen emaitzak, orokorrean, Bizkaiko emakume guztien emaitzen antzekoak dira, baina halako egoerek presentzia handiagoa dute oinarrizko ikasketak dituzten emakumeen artean (%42,3 eta %51, hurrenez hurren).

Azkenik, 3. taulako emaitzetan argi eta garbi adierazita gelditu den beste alderdi bat, izan ere, "goi ikasketak" dituzten emakumeek etxe barruko indarkeria egoera gutxiago jasatea

da. Horrela, Bizkaiko emakume guztien %21,8k goi ikasketak dituzte (maila desberdinetan), lehen esan dugunez, eta horien artean, tratu txarreko egoera adierazi dutenen ehunekoak %9,7koa da.

Horrenbestez, emakumearen ikasketa mailak eragin handia dauka emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentzian edo presentziarik ezan. Horrela, ikasketa maila zenbat eta txikiagoa izan, hainbat eta aukera gehiago dago halako egoerak egoteko, eta alderantziz, ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan, halako egoerak egiteko aukerak hainbat eta urriagoak dira, bai adierazitako tratu txarrari eta bai tratu txar teknikoari dagokionez. Hala eta guztiz ere, alderdi horretan salbuespen bat aurkitu da, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen kasua.

#### 4.2.4. Lan egoera

4. taulan, ikerketa honetan aztertutako hiru emakume taldeen lan egoeren multzoa dago jasota. Bestalde, 8. grafikoan hiru lan-parametroak daude laburbilduta: okupazioa, langabezia (emakume aktiboak) eta ez-aktibotasuna.


Emaitzek agerian jarri dutenez, lotura adierazgarria dago: laneko okupazioa zenbat eta handiagoa izan, emakumeen aurkako etxe ba-

## 4. taula. Lan egoera, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Oraingo lan egoera	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
<b>AKTIBOAK</b>	29,0	31,4	42,3
<b>a) Okupatuak</b>	19,4	22,9	31,9
Autonomoa		2,0	3,0
Herri Administrazioan lanean		2,0	2,2
Kontratu mugagabearekin lanean	6,5	9,8	15,3
Aldi baterako kontratuarekin lanean		5,9	7,8
Kontraturik gabe lanean		0,7	1,2
Etxeko langilea	12,9	2,6	2,5
<b>b) Langabetuak</b>	9,7	8,5	10,3
Langabeziako diru-laguntzarekin	3,2	2,6	4,2
Langabeziako diru-laguntzarekin gabe	6,5	5,9	6,2
<b>EZ-AKTIBOAK</b>	71,0	68,6	57,7
Ikaslea	12,9	1,3	4,2
Etxekoandrea	41,9	58,2	34,8
Pentsioduna (Gizarte Segurantzza)	9,7	8,5	17,1
Pentsioduna (ezgait. edo elbarr. pentsioa)	3,2		0,7
Jubilatua edo ezgait. pentsio eta diru-laguntza barik		0,7	0,5
Gizarte laguntzaren jasotzailea	3,2		0,5
<b>Guztira</b>	100	100	100

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

## 8. grafikoa. Oraingo lan egoera (okupatuak, langabetuak eta ez-aktiboak), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



rruko indarkeria egoeren hainbat eta identifikazio txikiagoa egon da, Bizkaiko Lurralde Historikoan. Eta alderantziz: laneko jarduera (ez-aktibotasuna) zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta tratu txar egoera gehiago dago (adierazitako tratu txarra eta tratu txar teknikoak).

Tratu txarreko egoera adierazi duten emakumeen %71 ez-aktiboak dira, eta ehuneko hori %68,6koa da tratu txar teknikoak jasaten duten emakumeen artean; bi ehuneko horiek askoz ere handiagoak dira Bizkaiko oraingo emakume ez-aktiboen ehuneko bako (%57,7).

Ez-aktibotasun egoeraren barruan, irudirik adierazgarriena "etxeoandrea" da, kontuan hartuta azken bi urteotan etxe barruko indarkeria egoerak jasan dituzten emakume guztien %42k (talde honen barruko ez-aktiboen arteko %59,1) eginkizun hori dutela egunero, eta tratu teknikoak jasan duten emakumeen artean ehuneko hori %58,2koa da.

Baina,aldi berean, esan behar da adierazitako tratu txarraren taldearen barruko emakume ez-aktibo guztien %12,9 (talde honetako ez-aktiboen %18,2) "ikasleak" direla, eta ehuneko hori Bizkaiko emakumeen multzoaren ehuneko bako askoz ere handiagoa da (%4,2), baita tratu txar teknikoak jasan dutenen ehuneko bako handiagoa ere (%1,3).

Jardueraren ikuspegitik begiratuta, aipagarria da desberdintasun handiak daudela Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentziari dagokionez, emakume horiek "langabetuak" direnean. Hala ere, enpleguaren eta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren arteko lehenengo erlazioan azaldu denez, okupazioaren kasuan ezin daiteke gauza bera esan. 4. taulan eta 8. grafikoan argi ikusten da okupazioak, nolabait ere, moteldu egiten duela emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentzia.

Hala eta guztiz ere, arau horrek salbuespena dauka; hain zuzen ere, arlo honen mugen barruan garatzen den okupazio bakarra: "etxeo enplegatua". Ikasleen kasuan bezala, orain tratu txarrak dituztela dioten emakume guztien %13 (okupaturikoen %66,7) etxeo enplegatua dira, eta emaitza hori askoz ere gorago dago Bizkaiko emakumeen artean duen ehuneko

bako (%2,5), baita tratu txar teknikoak jasaten dituzten emakumeen ehuneko bako ere (%2,6).

Laburtzeko, emakumeek etxeo lanak egiteak, edo euren okupazio nagusia arlo horren barrukoak izateak, bai etxeoandretzat (ez-aktiboak) edo bai etxeo enplegatutzat (okupatuak), emakumeen aurkako adierazitako tratu txarrak (zuzenak) eta tratu txar teknikoak (zeharkakoak) identifikatzeko aukera gehiago sortzen du. Aldiz, emakumeak inguru horretan zenbat eta denbora laburragoa egin, batez ere etxetik kanpoko lanetan beste eginkizun sozialen bat garatzen duelako, hainbat eta aukera gutxiago dago etxe barruko indarkeriaren biktima izateko.

Ikerketa horiek aintzat hartuta, Bizkaiko emakumeen iritziak azalduko ditugu; hain zuzen ere, alde batetik, okupaturik daudenen iritziak, eta bestetik, enplegu gabeak edo ez-aktiboak direnen iritziak.


#### 4.2.4.1. Okupaturiko emakumei buruz

Okupaturiko emakumei, lan egoera horretan egotearen bi zergati nagusiak aukeratzeko eskatu zitzaizkien, eta horretarako, zazpi aukera eskaini zitzaizkien. 9. grafikoan argi eta garbi ikusten da okupazioak sorturiko soldataren familia orientazioa emakumeak enplegaturik egotearen zergati nagusia dela. Lanaren (enplegutzat hartuta) tresnazko dimentsio horixe ikusten da "diru-sarrerak beharrezkoak dira etxearen mantentzearentzat" deritzonari emandako erantzunetan (%29,0), baita "beste zergati batzuk" deritzonaren erantzunetan ere, eta bertan, emakumeek etxea/familia orientazio hori indartzen duten arrazoiketak adierazi dituzte.

Era berean, baina etxea/familiako berriratzeko orientazio hori barik, enpleguaren tresnazko ulermena egiaztatu da "diru gehiago edukitzeko" deritzon aukeran bildutako erantzunen ehunekoan (%15,9); okupazioaren hirugarren zergati nagusia da.

Hala eta guztiz ere, zergati nagusia eta zeharrekia azaldu ondoren, emaitzetatik ondorioztatzen denez, desberdintasun adierazgarriak daude emakumeak etxe barruko indarkeria egoerkin duen erlazioaren arabera. Horrela, okupazioaren banakako orientazioa agerian jartzen

### 9. grafikoa. Gaur egun okupaturik egotearen zergati nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005



duten galderei emandako erantzunek, hau da, soldataren etxea/familia orientazioa gainditzen duten erantzunek, garrantzi nahiko txikiagoa dute Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko adierazitako tratu txarreko edo tratu txar teknikoko egoerak identifikatu diren kasuetan. "Independentszia ekonomiko handiagoa edukitzea" eta "autonomia pertsonal handiagoa edukitzea" deritzenek ehuneko askoz ere txikiagoa sortu dute bi emakume talde horietan, Bizkaiko emakume guztien artean baino; izan ere, adierazitako tratu txarraren taldearen barruan dauden emakumeen artean ez da zergati hori agertu.

Emaitza horiek indarkeria egoeran dauden emakumeen artean sarritan agertzen den joera bat nabarmentzen dute; hain zuzen ere, euren dimentsio pertsonalaren edo banakako dimentsioaren murriztapena eta, batzuetan, ezabaketa. Kasu honetan, agerian gelditu da enplegua edukitzea, batez ere, besteengana (batik bat, familiakoengana) bideraturiko tresna dela, Bizkaian etxe barruko indarkeria egoera jasaten


duten emakumeen artean, autonomia pertsonaleko arloa (norberaren eremua) mantentzeko baliabidea izan beharrean.

#### 4.2.4.2. Enplegatu gabekoak eta ez-aktiboak diren emakumeei buruz


Enplegu barik eta ez-aktibotasun egoeran dauden Bizkaiko emakumeen taldeari dagokionez, 10. grafikoa ikusten da halako hamar emakumetik zazpi lehen lan egiten zutela (%72,6).

Lehen enplegua utzi izanaren zergatietan ere ez da desberdintasun handirik ikusten hiru emakume taldeen artean. Adierazitako zergatiak ugariak izan arren, 11. grafikoa zergati garrantzitsuenak aukeratu dira. Egoera zibila-ren aldaketa ("ezkondu egin nintzen") da zergati nagusienetakoa. Horri etxea/familiari loturiko beste zergati batzuk gehituz gero ("seme-alabak zaintzeko" eta "familiako beste batzuk zaintzeko" -aita, ama, etab.-), argi gelditzen da Bizkaiko emakumeak lan-merkatutik irteko zergati nagusia lanekoa ez den eremuko zaintzaile rola dela.

10. grafikoa. Ez-aktibotasun edo langabeziako oraingo egoera baino lehen okupatuta, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



11. grafikoa. Enplegua utzi izanaren zergati nagusiak (lehen okupaturik zeuden emakumeen eta orain ez-aktibotasun edo langabezia egoeran dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.




Zaintzaile rol horren indarra 12. grafikoa ere ikusten da; izan ere, bertan agertzen denez, Bizkaiko hamar emakumetik zortzik diote ez dabiltzala enplegu bila. Argi dago, 13. grafikoko emaitzak ikusita, "erretiro edota erretiro aurre-


ko" egoeran eta "adina" egoeran gaur egun lan-merkatutik kanpo egoteko zergati guztien %60 biltzen direla, eta horrek, nolabait ere, justifikatu egiten du oraingo egoera, jardueraren ikuspegitik begiratuta.



12. grafikoa. Lan bilaketa (lehen okupaturik zeuden emakumeen eta orain ez-aktibotasun edo langabezia egoeran dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



13. grafikoa. Enplegua ez bilatzearen zergati nagusiak (lehen okupaturik zeuden emakumeen eta orain ez-aktibotasun edo langabezia egoeran dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



Hala ere, gainerako %40aren emaitzek agerian jartzen dute Bizkaiko emakumeak beste zergati batzuegandik ere irteten direla lan merkatutik, hau da, adinari edo bizi-zikloari lotuta ez dauden zergatien eraginez ere irteten direla bertatik; hain zuzen ere, eurak nahita irteten dira merkatu horretatik. Ez gara ari "nahiago dut ordain arteko moduan jarraitu" erantzunari buruz. Izan ere, bizi-aukera hori Bizkaiko emakume guztien %15,6k hartzen dute, eta tratu txar tekniko jasaten duten emakumeen %17k, baina etxe barruko tratu txarra adierazi duten emakumeen artean ez da erantzunik aurkitu. Horrenbestez, beste adierazle bat agertzen da eta horrek agerian jartzen du etxe barruko hormek mugaturiko egoeratik irten beharra dagoela, Bizkaian bizi eta azken bi urteotan tratu txarrak izan dituzten emakumeek ez baitute egoera hori atsegin. Izan ere, emakume horien kasuan, ez dago oraingo egoeran jarraitu nahi izateari loturiko erantzunik. Azken batean, adierazitako tratu txarreko egoeran dagoen emakumeak ez du borondaterik eta autonomiarik.

#### 4.2.5. Jaiotza lekua

Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeei zein probintzian jaio diren ere galdetu zaie. Izan ere, jaiotza lekuak, erabili diren beste aldagai soziodemografiko batzuen kasuan bezala, balio azaltzaile edo analitiko mugatua dauka, eta beraz, ez da ezarri behar aldagai horri soilik loturiko zergatirik.

Galdera hau galdeketan sartzearen zergatia, izan ere, emakumeen aurkako (Bizkaian orain bizi direnak) etxe barruko indarkeria egoerak emakume horiek atzerrian jaio izanari lotu ahal izatea da. Hala ere, irakurleak badaki oso zaila dela etorkin talde horren erakarpina egitea, are gehiago kontuan hartuta erabilitako aukera metodologikoa (telefonozko galdeketa), talde horrek gehienbat sakelako telefonoak erabiltzen baititu, telefono finkoak baino gehiago. Hala eta guztiz ere, behin betiko erakarpina 2001ekoaren nahiko antzekoa izan da (azken datu erabilgarria, guztizkoaren %2,4); jakina talde horren kopuruak gora egin du, gure lurraldera gero eta etorkin gehiago iristearren eraginez.

Dena den, faktore soziologiko eta metodologiko horiek ahaztu barik, 5. taulan ikusten da emakume atzeritarren taldearen iritziak lortzeko modua (Bizkaian bizi diren emakume guztien %2,5), eta agerian gelditu da etxe barruko tratu txarra jasotzen duten emakume guztien %6,5 Estatutik kanpo jaiotakoak direla.

Emaitzetan agerian geldituenez, bestalde, orain Bizkaian bizi eta tratu txarrak jasaten dituzten emakume guztien %45,2 EAetik kanpoko probintzietan jaio dira, eta ehuneko hori askoz ere handiagoa da arlo horretan Bizkaiko emakume guztientzat dagoen ehuneko baina (%26,8).

Emaitza horien interpretazioa egiteko, elkarri estu loturiko bi alderdi hartu behar dira kontuan: Bizkaiko Lurralde Historikoko emaku-

5. taula. Jaiotze lekua, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Jaiotze lekua	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Bizkaia	48,4	64,1	68,1
EAEko gainerako lurraldeak		2,6	2,7
Estatuko gainerako eskualdeak	45,2	30,1	26,8
Atzerria	6,5	3,3	2,5
Guztira	100	100	100

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

meen batez beteko adina (50 urte ingurukoa) eta Bizkaiko gizartea modernatzeko prozesua. Horrela, hirurogeiko eta hirurogeita hamarrekadan, Galizian, Andaluzian, Extremaduran eta Gaztela-Leonen jaiotako emakumeek migrazio prozesuak egin zituzten Bizkaiara, eta prozesu horiek garrantzi kuantitatibo handia izan zuten. Segurutzat, azken bi urteotan etxe barruko indarkeria egoerak izan dituzten emakumeetariko asko migrazio prozesu horietako emakumeak izan ziren. Horrenbestez, azterketa sakonagoa egin behar da, migrazio fenomeno horrek emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan duen eragina jakiteko, eta azterketa hori, halaber, beste migrazio fenomeno batzuei aplikatzeko modukoa izan daiteke, hau da, Estatu kanpotik iritsitako emakumeen migrazio prozesuari (gaur egun gure lurraldean ikusten ari garen prozesua).

#### 4.2.6. Bizilekua (udalerraren tipologia)

Ikerketa honen barruko emakumeei loturiko azken aldagai soziodemografikoa bizilekua da. Gogoratuko denez, ikerketaren unibertsoaren segmentazioa aldagai horrexetan euskarritu zen,


eta lau (4) udalerrri tipologia ezarri ziren, udalerraren biztanle kopurua aintzat hartuta.

14. grafikoan honako erlazio hau ikusten da: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazio handiagoa, eta alderantziz. Horrela, adierazitako tratu txarraren taldearen barruko kasu guztien %58,1 50.000 biztanletik gorako Bizkaiko udalerrietan bizi dira, eta ehunekoa %56,2koa da tratu txar teknikoaren taldeari dagokionez.

Bi talde horien identifikazioak beherakada handia dauka udalerraren bigarren mailan; izan ere, 20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko Bizkaiko udalerrietan, tratu txarreko egoeran dauden emakumeen presentzia guztizkoaren %20koa da, eta gainerako bi tipologiaetan ehuneko hori gero eta txikiagoa da.

6. taulan identifikazio jarraibide horixe adierazten da; izan ere, bertan ikusten denez, Bizkaian 50.000 biztanle baino gehiago (1. tipologia) dituzten udalerririk soilik dute talde bakoitzaren guztizkotik gorako ehunekoa, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazioari dagokionez, eta gainerako udalerririk, berriz, horren azpitik daude.

14. grafikoa. Bizilekua (udalerraren tipologia) emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



## 6. taula. Bizilekua (udalerrriaren tipologia), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Udalerrien tipologia	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
1. tipologia (> 50.000 biztanle)	5,7	27,3	100,0
2. tipologia (20.001 - 50.000 biztanle)	5,0	25,6	100,0
3. tipologia (5.001 - 20.000 biztanle)	4,7	23,6	100,0
4. tipologia (0 - 5.000 biztanle)	3,4	18,6	100,0
Guztira	5,2	25,5	100,0

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Emaitzak ikusita, beraz, esan daiteke "bizilekua" deritzon aldagaia ez dela oso eraginkorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan. Hala ere, "jaiotza lekua" aldagaiaren kasuan ezarritako interpretazio lerroa mantenduta, bizilekuaren dimentsio horretan beste aldagai batzuk ere aintzat hartu behar dira.

Lan eremua/hiria bereizketak balio azaltzaila galdu du, praktika sozialen ikuspegitik begirata, besteak beste honako honetan oinarrituz: aldaketa teknologikoak, garraioko edo mugikortasuneko aldaketak, informazioa eskuratzeko aukera, etab. Aldaketa horien guztien eraginez, hiriko bizimoduak orokortu egin dira. Hala ere, kontuan hartuta Bizkaiko Lurralde Historikoko lurralde antolaketa eta biztanleria egitura, eta landa lanean egindako iruzkin batzuk ere aintzat hartuz, esan daiteke emakumea bizi den udalerrriaren "landatar" izaera handiagoak edo txikiagoak eragina duela emaitzetan. Izan ere, landa-testuinguruak eragina izan dezake horretan: halako inguruetan oztopatu egiten da tratu txarreko egoeren inguruko adierazpena, emakumearen gaineko kontrol sozial handiagoa egotearen ondorioz.

Halaber, alderantzizko fenomenoak ere gerta daitezke; izan ere, hirian bizitzeak (kontrol sozial motelagoa) efektu dinamizatzailea izan dezake emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera horien identifikazioan. Horrek guztiak, hala eta guztiz ere, ez dio garrantzirik kentzen lehen adierazi dugun tesiari, hau da, bizilekuaren aldagaiak Bizkaiko errealitate sozialaren azterketa maila horretan duen eragin urriari.

### 4.3. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA EGOERAK BIZKAIAN GAUR EGUN

Azterketan erreferentziatzen hartu diren hiru emakume taldeen ezaugarri soziodemografikoak aztertu ondoren, atal honetan emakumeen aurkako etxe barruko hamalau (14) indarkeria egoerak identifikatuko dira, eta egoera horiek, aldi berean, bost (5) tipologia sartuta daude.

Ondoren azaltzen diren emaitzetan, honako egoera hauek "gutxienez behin" eta "sarritan" edo "batzuetan" deritzenetan "gaur egun" duten presentzia adierazten da, Bizkaian bizi diren emakumei dagokienez:

#### 1. Indarkeria fisikoa

- "Bultzatzea, jotzea edo gauzak jaurtikitzea atsegin du" (galdeketa 21. galdera, 11. enuntziatua, 21.11 gald.).

#### 2. Indarkeria sexuala

- "Sexu-harremanak edukitzeko orduan presionaturik sentitzen zara; nahi ez duzula edo gogorik ez duzula jakin arren, ekin egiten du." (21.8 gald.)

- "Ez dizu kasurik egiten sexu harremanak eduki nahi dituzunean." (21.9 gald.).

#### 3. Indarkeria ekonomikoa

- "Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu mantenu autonomorako nahikoa ematen." (21.2 gald.)

- "Gastuak kontrolatzen dizkizu (libretak, txartelak, etab.)." (21.6 gald.)

- *"Diru gehiegi gastatzen du, etxeko beharrezan kaltetan."* (21.7 gald.)

#### 4. Indarkeria psikologikoa

- *"Oihu, irain edo mehatxu egiten dizu."* (21.3 gald.)
- *"Etxeko gauzak apurtzen ditu."* (21.4 gald.)
- *"Ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiosoak, etab.), edo ez ditu zure zaletasunak (janzteko modua) eta beharrian afektiboak aintzat hartzen."* (21.10 gald.)
- *"Ez du baloratzen zeuk egindako lana."* (21.12 or.)
- *"Gauzak zeuk bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, trakets hutsa zarela."* (21.13 gald.)

#### 5. Indarkeria soziala

- *"Ez dizu familia ikusten uzten edo lagunekin, auzokoekin eta abarrekin harremanak izaten."* (21.1 gald.)
- *"Ez dizu lanik egiten edo ikasten uzten."* (21.5 gald.)
- *"Leku txarrean uzten zatitu (deskalifikazioak, ezeztapenak, barregarri uzteak...) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunaren aurrean, familiakoen aurrean, etab.)."* (21.14 gald.)

Zalantzarik gabe, atal hau ikerketaren erdiguneetariko bat da. Beraren bidez, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria ekintza ugariak (gaur egunekoak) identifikatu ahal dira, eta, aldi berean, emaitzak hiru emakume taldeen arabera konpara daitezke berriro: adierazitako tratu txarra dutenak, tratu txar teknikoak dutenak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakume guztiak.

#### 4.3.1. Egoeren arabeko emaitzak: "etxeko lanaren balorazio ezaren" hegemonia

7. taulan, emakumeen aurkako bost (5) indarkeria motak identifikatzen dituzten hamalau (14) egoeretariko bakoitzari emandako erantzunak agertzen dira, galdeketa barruko ordena errespetatuz. Hurrengo atalean sakondu egingo diren arren, lehenengo eta behin, aipagarria da indarkeria psikologikoen barruan dauden egoeren

garrantzia, eta horietan biltzen dira ehunetik handienak, hiru emakume taldeei dagokienez

Hala eta guztiz ere, tipologiaren aldetik dagoen homogeneotasun horretan taldeen arteko desberdintasun nabariak ezkututzen dira, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria psikologikoa loturiko egoeren arabera. Horrela, argi eta garbi dago "ez du baloratzen zeuk egindako lana" (21.12 gald.) egoeraren nagusitasuna, tratu txar teknikoaren barruan sailkatutako emakumeen artean; izan ere, guztien ia %76k esan dute egoera hori "sarritan" edo "batzuetan" jasanarazten diola bere bizikidetzaren unitateko pertsonaren batek edo bikotekideak, orain berarekin bizi ez arren.

Hala ere, "ez du baloratzen zeuk egindako lana" (12 gald.) egoera bigarren mailan gelditzen da adierazitako tratu txarren taldearen barruko emakumeen artean (kasu guztien %45,2); kasu honetan, "oihu, irain edo mehatxu egiten dizu" (3. gald.) egoera dago (hau ere psikologikoa) lehenengo postuan, kasu guztien %61,3arekin.

Indarkeria psikologikoen tipologiaren barruko beste egoera batzuek ere presentzia dute Bizkaian bizi eta azken bi urteotan etxe barruko indarkeria egoera adierazi duten emakumeen taldearen barruan; izan ere, "ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiosoak, etab.), edo ez ditu zure zaletasunak (janzteko modua) eta beharrian afektiboak aintzat hartzen" (10. gald.), %35,5arekin, eta "gauzak zeuk bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, trakets hutsa zarela" (13. gald.), %32,3arekin, hirugarren eta laugarren postuan daude. Hala eta guztiz ere, "oihu, irain edo mehatxu egiten dizu" (3. gald.) egoeraren presentzia (etxe barruko eguneroko bizitzan) adierazpenik gogorrena da, emakumeen aurkako indarkeria psikologikoko egoera guztien artean. Beraz, agerian dago "oihu, irain edo mehatxuen" presentziak inflexio gunea adierazten duela tratu txar teknikoaren eta adierazitako tratu txarren artean, etxe barruko eremuan, bere dimentsio psikologikoa.

7. taulan, halaber, psikologikoa ez diren beste indarkeria egoera batzuk ikusten dira, emakumeen artean. Baina psikologikoa ez diren indarkeria egoera horiek bigarren mailako edo hondakinezko izaera dute tratu txar teknikoaren taldearen barruko emakumeen artean eta Bizkaiko emakume guztien artean.

7. taula. Guztikoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazioa, Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 (Erantzun anitza\*)

Etxeko pertsonaren batekin edo oraingo bikotekidearekin gertatzen diren egoerak	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
1. Ez dizu familia ikusten uzten edo lagunekin, auzokoekin eta abarrekin harremanak izaten	16,1	2,6	1,5
2. Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu mantenu autonomorako nahikoa ematen	12,9	3,9	1,7
3. Oihu, irain edo mehatxu egiten dizu	61,3	9,2	5,5
4. Etxeko gauzak apurtzen ditu	12,9	1,3	1,0
5. Ez dizu lanik egiten edo ikasten uzten	6,5	2,0	0,8
6. Gastuak kontrolatzen dizkizu (libretak, txartelak, etab.)	19,4	10,5	3,7
7. Diru gehiegi gastatzen du, etxeko beharrianen kaltetan	6,5	2,6	1,0
8. Sexu-harremanak edukitzeko orduan presionaturik sentitzen zara; nahi ez duzula edo gogorik ez duzula jakin arren, ekin egiten du.	16,1	9,2	3,2
9. Ez dizu kasurik egiten sexu harremanak eduki nahi dituzunean	19,4	3,3	1,8
10. Ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiosoak, etab.), edo ez ditu zure zaletasunak (janzteko modua) eta beharrian afektiboak aintzat hartzen	35,5	24,8	8,2
11. Bultzatzea, jotzea edo gauzak jaurtikitzea atsegin du	9,7	0,7	0,7
12. Ez du baloratzen zeuk egindako lana	45,2	75,8	21,6
13. Gauzak zeuk bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, trakets hutsa zarela	32,3	5,9	3,2
14. Leku txarrean uzten zaitu (deskalifikazioak, ezeztapenak, barregarri uzteak...) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunuen aurrean, familiakoen aurrean, etab.)	22,6	7,8	3,2

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

\* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketa %100 baino gehiago da.

Egoera horretatik urrun daude, aldiz, adierazitako tratu txarraren taldearen barruko emakumeak; izan ere, indarkeria sozialeko egoerak (adibidez, "leku txarrean uzten zaitu -deskalkifikazioak, ezeztapenak, barregarri uzteak...- beste batzuen aurrean, jendaurrean, lagunen aurrean, familiakoen aurrean, etab.-", guztizkoaren %22,6arekin), indarkeria ekonomikoari loturiko egoerak ("gastuak kontrolatzen dizkizu" -libretak, txartelak, etab.-, %19,4arekin) edo izaera sexuarekin "ez dizu kasurik egiten sexu harremanak eduki nahi dituzunean" (9. gald.) egoerak presentzia nahiko ohikoa dute adierazitako tratu txarrak (azken bi urteotan) adierazi dituzten emakumeen artean.


Gauza bera esan daiteke indarkeria fisiko adierazten duen egoera bakarrari buruz ere; izan ere, "bultzatzea, jotzea edo gauzak jaurtikitzea atsegin du" egoera (11. gald.) gutxiengoa da adierazitako tratu txarraren barruko emakumeen artean, talde horren %9,7arekin, eta tratu txar teknikoak duten emakumeen taldean egoera hori ia deuseza da (%0,7).

Laburtzeko, Bizkaian bizi eta adierazitako tratu txarraren taldearen barruan dauden emakumeek jasotzen dute etxe barruko indarkeria egoera kopururik eta aniztasunik handiena. Aldiz, tratu txar teknikoaren taldearen barruko emakumeek "kanpotik" bilatzen dute sailkapen horren zergatia, gehienbat tipologia psikologikoaren barruko indarkeria egoeren presentzian oinarrituz. Interpretazio horren barruan dagoen planteamendua hauxe jakitean oinarritzen da: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria psikologikoko egoeren presentziak ea denborarekin zer neurritan eragiten dituen beste egoera larriago batzuk, esate baterako, tipologia psikologiko honen barruan dagoena, hau da, iraina, oihua edo mehatxua; egoera hori, lehen esan dugunez, itxuraz lagungarria da emakumea tratu txarraren jasotzaile izateaz jabetzeko.

#### 4.3.2. Tipologiaren arabera emaitzak: indarkeria psikologikoa, etengabea

15. grafikoa berretsi egiten du lehenago adierazitako planteamenduetariko bat: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria psikolo-

15. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



gikoaren tipologia sarturiko egoeren nagusitasuna. Hori, gainera, hiru taldeei dagokionez, eta oraindik ere argiago tratu txar teknikoaren kasuan, bertan gertaturiko egoera guztien %73,4ra iristen baitira.

Aldiz, eta orain arte adierazitakoaren indotik, gainerako lau tipologiek (fisikoa, sexuala, ekonomikoa eta soziala) presentzia handiagoa dute adierazitako tratu txarraren taldean, baina tipologia nagusitik nahiko urrun.<sup>11</sup>

Hala ere, 8. taulan agian informazio garrantzitsuagoa agertzen da; bertan, emakumeen

aurkako etxe barruko indarkeria tipologia guztien arteko konbinazioak datoz. Egin daitezkeen hamasei (16) konbinazioetatik (gutxiagotik gehiagora aurkeztuta), orokorrean, bi gauza nabarmendu ahal dira: alde batetik, bost tipologiak batera ez dira ezein kasutan agertzen, eta gehien agertzen dena lau tipologiaren konbinazio bikoitza da; bestetik, gure iritziz, gauzarik garrantzitsuena indarkeria psikologikoaren tipologia presentzia iraunkorra da (berori osatzen duten egoera guztietan), eta hori kasu guztien %90ean agertzen da, bai adierazitako tratu txarraren eta bai tratu txar teknikoaren kasuan.

### 8. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia bat baino gehiago, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Tipologiak	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Indarkeria fisikoa bakarrik		0,7	0,6
Indarkeria sexuala bakarrik	4,2	2,0	2,3
Indarkeria ekonomikoa bakarrik		4,6	4,0
Indarkeria psikologikoa bakarrik	16,7	72,5	65,0
Indarkeria soziala bakarrik		2,6	2,3
Indarkeria psikologikoa eta sexuala	16,7	3,9	5,6
Indarkeria psikologikoa eta ekonomikoa	8,3	3,3	4,0
Indarkeria psikologikoa eta soziala	8,3	3,3	4,0
Indarkeria soziala eta ekonomikoa	8,3	1,3	2,3
Indarkeria sexuala eta ekonomikoa		1,3	1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa	4,2	0,7	1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala eta soziala	4,2	0,7	1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala eta fisikoa	4,2		0,6
Indarkeria psikologikoa, soziala eta ekonomikoa	12,5	1,3	2,8
Indarkeria psikologikoa, soziala, ekonomikoa eta fisikoa	8,3		1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala, soziala eta ekonomikoa	4,2	2,0	2,3
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.


<sup>11</sup> Horri dagokionez, bost tipologietariko bakoitzean egoeren presentzia ez da parekidetasuneko, alderdi kuantitatibotik begiratuta, eta presentziarik handiena indarkeria psikologikoa dauka (guztira bost), gero indarkeria ekonomikoa eta soziala dator (hiru egoera), ondoren sexuala (bi) eta azkenik indarkeria fisikoa (bat).

Horri dagokionez, 16. grafikoak berretsi egingen du Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera horien *izaera eta adierazpen desberdina*, erabili diren bi taldeen arabera. Tratu txar teknikoaren kasuan, indar-

keria tipologia bakarraren presentziak kasu guztien %82,4 biltzen ditu (protagonista nagusia indarkeria psikologikoa, "ez du baloratzen zeuk egindako lana" egoeran -12. gald.-); adierazitako tratu txarraren kasuak, aldiz, indarkeria tipologia bat baino gehiago dauka, bai bi (batez ere, indarkeria psikologikoa eta sexuala), %41,7arekin, eta bai hiru (batik bat, indarkeria psikologikoa, soziala eta ekonomikoa), eta horrek %25eko presentzia dauka talde osokoari dagokionez.



16. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia bat baino gehiago, emakume taldearen arabera. Ehunekoak. 2005.



17. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren noiztik honakoa, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



### 4.3.3. Egoeren iraunkortasuna denboran

Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko egoera eta tipologia nagusiak identifikatu ondoren, 17. grafikoan informazio eremu berria jasotzen da: egoera horien noiztik honakoa.

Denbora dimentsioaren azterketak, funtsean, bi gertaera detektatzeko aukera ematen du. Lehenengo eta behin, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren iraunkortasuna; izan ere, adierazitako tratu txarraren kasuan ehuneko %55,6koa da eta tratu txar teknikoaren kasuan, berriz, %76,3koa, eta egoera horrek "10 urtetik gorako" iraupena dauka. Bestetik, bigarren denbora tartean ere ("6-10 urte") kasu bolumen handia biltzen da bi taldeetan.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerek iraupen

luzea dute denboran: sei urte baino gehiago, tratu txar teknikoaren barruko hamar emakumetik bederatzi baino gehiagoren kasuan (%93,0), eta ehuneko %85,2koa da adierazitako tratu txarraren kasuan.

### 4.3.4. Bikotekidea, tratu txarraren eragile nagusia: adina, ikasketa maila eta lan egoera

Atal honetako azken adierazlea, izan ere, Bizkaian bizi den eta etxe barruko indarkeria jaso duen emakumearen tratu txarraren eragilearen identifikazioa da. 9. taulan argi eta garbi ikusten da tratu txarraren eragile nagusia "bikotekidea" dela tratu txar teknikoaren kasuan (%59,3), eta horrek presentzia dauka etxe barruko emakumeen aurkako indarkeria egoera guztien %70,1ean.

9. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Tratu txarreko egoeren eragilea	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Bikotekidea	59,3	70,1	68,8
Semea(k)	11,1	16,8	16,1
Alaba(k)		7,1	6,3
Aita	11,1	1,5	2,7
Ama	3,7	1,5	1,8
Neba-arrebak	11,1	1,5	2,7
Familiako beste kide batzuk	3,7	0,5	0,9
Familiakoak ez diren pertsonak		1,0	0,9
Guztira	100	100	100

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Azken talde tekniko horren barruan, aipagarria da semeek (%16,8) eta alabek (%7,1) tratu txarren eragiletzat duten protagonismoa, eta hori egoera guztien %24ra iristen da; adierazi-

tako tratu txarraren kasuan ehuneko %11,1ekoa da (protagonistak semeak bakarrik).

Bikotekideak tratu txarraren eragiletzat duen protagonismoa handiagoa izango litzateke, egoerak barik kasuak edo emakumeak aipatzen

baditugu: adierazitako tratu txarraren kasuan, bikotekideak kasu guztien %76,2ko presentzia dauka tratu txarren eragileztat, eta tratu txar teknikoaren taldean horren presentzia oraindik ere handiagoa da (talde honen guztizkoaren %96,5).

Hurrengo taulak maila honetan mantentzen dira; bertan, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren eragilearen profila adierazten da, kontuan hartuta adina, ikasketa maila eta lan egoera. Lehenengo ezaugarriari dagokionez, **10. taulan** argi eta garbi ikusten da emakumeen adinaren aldagaia aztertzean adierazitako zergati logikoetariko bat, hau da, tratu txarraren eragilearen adina zenbat eta handiagoa izan, horrek eragindako indarkeriak hainbat eta presentzia handiagoa dauka. Hori argiago ikusten da adierazitako tratu txarraren kasuan; talde horren barruko tratu txarren eragileen %50, izan ere, 65

urtekoak edo hortik gorakoak dira, eta beraz, ehuneko-presentzia Bizkaia osokoaren gainera dago erabat; era berean, hori agerian gelditzen da talde honetako tratu txarraren eragilea den bikotekidearen batez besteko adinean (50-60 urte, hiru taldeen arteko handiena).

Bestalde, tratu txarren eragilea den bikotekidearen hezkuntza eta lan profila aztertzen hasi baino lehen, ikerketa honen emaitza interesgarriena bat gogoratu behar da: Bizkaian bizi eta azken bi urteotan tratu txarrak adierazi dituzten 18-29 urte bitarteko emakumeen ehunekoak. **10. taulan** adin-bitarte horri dagokionez jasotako ehunekoak aintzat hartuta, esan daiteke Bizkaiko 18-29 urte bitarteko emakumeen tratu txarren eragileak ez direla bikotekideak, berarekin etxean bizi diren beste pertsona batzuk baizik, hau da, familiako kide batzuk.

### 10. taula. Bikotekidearen adina, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia denean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Adin taldeak	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
18 - 29	6,3	2,2	12,9
30 - 39	6,3	11,74	16,9
40 - 49	12,5	22,6	20,1
50 - 64	25,0	31,4	27,3
65 edo gehiago	50,0	32,1	22,8
Guztira	100	100	100
Batez besteko adina	60,50	56,41	50,36

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Adinaren kasuan bezala, bikotekidearen ikasketa mailan ere (hori tratu txarren eragilea denean), emakumeen kasuan hezkuntza aldagaian oinarrituz ezarritako erlazioa ikusten da; hau da, ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan, tratu txarrek hainbat eta presentzia txikiagoa dute; eta alderantziz, ikasketa maila zenbat eta txikiagoa

izan, tratu txarrek orduan eta presentzia handiagoa. **11. taulan** argi ikusten da hori; izan ere, adierazitako tratu txarraren barruko emakume taldeko indarkeriaren eragileak diren bikotekide guztien %62,5ek oinarritzko ikasketak dituzte edo ez dituzte amaitu, eta ez da identifikatu unibertsitateko hezkuntza mailako kasurik

11. taula. Bikotekidearen ikasketa maila, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia denean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Bikotekidearen ikasketa maila	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Oinarrizkoak amaitu barik	25,0	5,8	3,2
Oinarrizkoak (OHO, Eskola Graduata, oinarrizko Batxilergoa)	37,5	46,0	39,5
Bigarren mailakoak (goiko Batxilergoa / BBB / UBI)	18,8	20,4	20,1
Lanbide ikasketak (L.H. I / L.H. II)	12,5	12,4	14,9
Unibertsitateko ertainak (diplomatura)	6,3	4,4	5,6
Unibertsitateko goi mailakoak (lizentziatura / doktoretza / gradu-ondokoa)	0,0	10,9	16,7
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

12. taula. Bikotekidearen lan egoera, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia denean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Oraingo bikotekidearen lan egoera	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
<b>AKTIBOAK</b>	<b>37,5</b>	<b>54,0</b>	<b>67,9</b>
a) Okupatuak	31,3	54,0	67,3
Autonomia	12,5	11,7	13,3
Herri Administrazioan lanean	0,0	1,5	1,8
Kontratu mugagabearekin lanean	12,5	35,0	43,3
Aldi baterako kontratuarekin lanean	6,3	5,1	7,9
Kontraturik gabe lanean	0,0	0,0	0,5
Etxeko langilea	0,0	0,7	0,5
b) Langabetuak	6,3	0,0	0,7
Langabeziako diru-laguntzarekin	0,0	0,0	0,2
Langabeziako diru-laguntzarik gabe	6,3	0,0	0,5
<b>EZ-AKTIBOAK</b>	<b>62,5</b>	<b>46,0</b>	<b>32,1</b>
Ikaslea	0,0	0,7	1,1
Etxekoandrea	0,0	0,0	0,0
Pentsioduna (Gizarte Segurantza)	56,3	42,3	28,9
Pentsioduna (ezgait. edo elbarr. pentsioa)	0,0	2,9	1,8
Jubilatua edo ezgait. pentsio eta diru-laguntza barik	0,0	0,0	0,0
Gizarte laguntzaren jasotzailea	6,3	0,0	0,2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Agerikoa da beheko hezkuntza mailetan dagoen pilaketa hori, adierazitako tratu txarraren taldeko emakumeen indarkeria eragiten duten bikotekideei dagokienez, estu lotuta dagoela euren batez besteko adinarekin (60,50 urte), eta beraz, hezkuntza lortzeko aukera urriagoko garaikoak dira.

Adinaren aldagai horrek eragin zuzen-zuzena dauka tratu txarren eragilea den bikotekidearen azken ezaugarri soziodemografikoan, hau da, lan egoeran; izan ere, adierazitako tratu txarraren taldeari dagokionez, guztizkoaren %62,5 egoera ez-aktiboan dago eta gehienak pentsionistak dira (%56,3). Hortik ondorioztatzen denez, kasu honetan ere, adinaren eta ikasketa mailaren aldagaiaren kasuan bezala, emakumeentzat ezarritako erlazioa gertatzen da, hau da, okupazioak murriztu egiten du emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentzia.

#### **4.3.5. Oihuak, irainak edo mehatxuak eta psikologikoak ez diren beste indarkeria egoera batzuk, emakumeak tratu txarraren biktima izateari buruz duen banakako pertzepzioaren inflexio-puntutzat**

Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko oraingo indarkeria egoerarik ohikoena eta tipologiak, horien denbora iraupena eta tratu txarraren eragilea identifikatu ondoren, badirudi "oihuak, irainak edo mehatxuak" egoteak (alde batetik) edo egoera psikologiko horri psikologikoak ez diren tipologietako (sexuala, ekonomikoa edo soziala) beste egoera batzuk gehitzeak (bestetik) inflexio puntua adierazten duela, emakumeak tratu txarren jasotzailetzat duen banakako pertzepzioan.

Arriskutsua da logika deterministak ezartzea, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria bezalako fenomeno konplexu batean; hala eta guztiz ere, etxe barruko indarkeria egoerak bizi dituen emakumeak berak tratu txarren jasotzailetzat duen jabetze mailan eragina dute lehen adierazitako bi egoerek. Eta alderdi hori oraindik argiago ikusten da tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean deritzon taldeko emaitzen azterketa egiten duen hurrengo atalean (adierazitako tratu txarren taldearen esperientzietatik hurbilago dagoen taldea).

#### **4.4. "TRATU TXAR TEKNIKOA ZENTZU ZORROTZEAN": AZTERKETA BEREZIA**

"Ikerketaren diseinua" deritzon kapituluaren adierazitakoaren arabera, emaitzen azterketak eragin erabakigarria izan du emakumeen hirugarren sailkapen baten sorreran, eta sailkapen horretan aintzat hartzen da emakumeek etxe barruko indarkeria egoerei dagokienez duten bizi-maila.

Emaitzen azterketak agerian jarri duenez, tratu txar teknikoaren taldearen barruko emakume guztien %47,7k etxe barruko indarkeria egoerak identifikatzeko aukera ematen zuten galderetariko bati bakarrik erantzuten zioten "sarritan" edo "batzuetan". Galdera hori "ez du baloratzen zeuk egindako lana" (21.12 gald.) zen, eta egoera hori, berriz, indarkeria psikologikoaren barruan sartuta dago.

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera jakinean dagoen pilaketa kontuan hartuta, eta gainerako egoeretan "sarritan" edo "batzuetan" kategorietan erantzunik ez dela egon aintzat hartuz, tratu txar teknikoaren barruko emakumeen gainerako %53,3aren azterketa berezia egin behar da, horiek beste egoera batzuetan baitaude. Eta talde horri *tratu teknikoak zentzu zorrotzean* izena eman zaio.

Horrek guztiak eragina dauka Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren maila berri baten identifikazioan; izan ere, adierazitako tratu txarraren taldea %5,2koa da, eremu geografiko horretan bizi diren emakume guztiei dagokienez, eta tratu txar teknikoaren taldea %25,5koa da; hirugarren talde honetan, hau da, tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean izeneko taldean, salbuetsita daude indarkeria egoeratzat "ez du baloratzen zeuk egindako lana" (12. gald.) egoera soilik adierazten duten emakumeak, eta talde horretan emakume guztien %13,3 sartzen dira.

Horrela, bitarteko segmentu horretan sartzen diren emakumeek ez dute berariaz adierazten azken bi urteotan tratu txarrak izan dituztenik; baina, agian, egoera horretatik hurbilago daude, etxe barruan izandako bizipenatariko batzuen ezaugarriak kontuan hartuta.

13. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazioa, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza\*)

Etxeko pertsonaren batekin edo oraingo bikotekidearekin gertatzen diren egoerak	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoak	Guztira
1. Ez dizu familia ikusten uzten edo lagunekin, auzokoeekin eta abarrekin harremanak izaten	16,1	5,0	1,5
2. Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu mantenu autonomorako nahikoa ematen	12,9	7,5	1,7
3. Oihu, irain edo mehatxu egiten dizu	61,3	17,5	5,5
4. Etxeko gauzak apurtzen ditu	12,9	2,5	1,0
5. Ez dizu lanik egiten edo ikasten uzten	6,5	3,8	0,8
6. Gastuak kontrolatzen dizkizu (libretak, txartelak, etab.)	19,4	20,0	3,7
7. Diru gehiegi gastatzen du, etxeko beharrianen kaltetan	6,5	5,0	1,0
8. Sexu-harremanak edukitzeko orduan presionaturik sentitzen zara; nahi ez duzula edo gogorik ez duzula jakin arren, ekin egiten du	16,1	17,5	3,2
9. Ez dizu kasurik egiten sexu harremanak eduki nahi dituzunean	19,4	6,3	1,8
10. Ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiosoak, etab.), edo ez ditu zure zaletasunak (janzteko modua) eta beharrian afektiboak aintzat hartzen	35,5	47,5	8,2
11. Bultzatzea, jotzeak edo gauzak jaurtikitzea atsegin du	9,7	1,3	0,7
12. Ez du baloratzen zeuk egindako lana	45,2	53,8	9,5
13. Gauzak zeuk bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, trakets hutsa zarela	32,3	11,3	3,2
14. Leku txarrean uzten zaitu (deskalifikazioak, ezeztapenak, barregarri uzteak...) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunuen aurrean, familiakoen aurrean, etab.)	22,6	15,0	3,2

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

\* Erantzun anitza: ehunekoak batuketa %100 baino gehiago da.

#### 4.4.1. Egoeren araberako emaitzak: "etxeko lanaren baloraziorik ezaren" hegemonia txikiagoa

Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean deritzon taldean sailkaturiko emakume-talde horren emaitzek tratu txar teknikoaren taldekoek adierazitako emaitzen ordena bera mantentzen dute, eta nagusitu egiten dira "sarritan" edo "batzuetan" gertatzen diren tratu txar psikologikoak: "ez du baloratzen zeuk egindako lana (12. gald.)", kasu guztien %53,8arekin, eta "ez ditu zure sinetsmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiosoak, etab.), edo ez ditu zure zaletasunak (janzteko modua) eta beharizan afektiboak aintzat hartzen (10. gald.)", kasu guztien %47,5arekin.


Hala eta guztiz ere, bi desberdintasun agertzen dira: alde batetik, "gastuak kontrolatzen dizkizu (libretak, txartelak, etab.)" (6. gald.), kasu guztien %20arekin, eta, aipagarriena, "oihu, irain edo mehatxu egiten dizu" (3. gald.), kasu guztien %17,5arekin. Eta emaitza horiek hurbilago daude adierazitako tratu txarreko taldean adierazitakoetatik.

#### 4.4.2. Tipologiaren araberako emaitzak: adierazitako tratu txarreko hurbilketa

Adierazitako tratu txarreko taldearen eta tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldearen emaitzen hurbiltasun handiagoa argi eta garbi ikusten da 18. grafikoan. Bizkaian bizi eta azken bi urteotan etxe barruko tratu txarra jasan dutela adierazi duten emakume taldearen ezaugarri berezigarria, tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldeari dagokionez, indarkeria fisikoaren tipologiaren barruko egoera gehiagoren (%3,1) eta indarkeria sozialeko egoera gehiagoren presentzia da (%14,3). Hala eta guztiz ere, indarkeria sexuareko kasuan oso antzekoak dira, eta tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldea indarkeria psikologikoari loturiko egoeren presentzian soilik gaituzten da (guztizkoaren %62), baita indarkeria ekonomikoari loturiko egoeren presentzian ere (%15,2).

Hala ere, emaitzarik adierazgarrienak 14. taulan aurkituko ditugu, zalantzarik gabe. Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldean sailkaturiko emakumeek estu-estu lotutako bi berezitasun

18. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005.



dituzte: lehenengo eta behin, indarkeria psikologikoen tipologiaren presentzia txikiagoa da adierazitako tratu txarraren taldean baino (%76,3 eta %90, hurrenez hurren), eta bigarrenaz, horren ondorioz, "indarkeria ekonomiko bakarrik" (%8,8), "indarkeria soziala bakarrik" (%5,0) edo "biak batera" (%2,5) deritzon kasuen presentzia erlatiboa handiagoa da. Dirudenez, beraz, tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldean emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria tipologiaren aniztasun handiagoa dago.

Hala eta guztiz ere, 19. grafikoan berretsitakoaren arabera, adierazitako tratu txarraren taldean dauden emakumeek eta tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldean dauden emakumeek aipaturiko indarkeria egoerak elkarrengandik hurbil daude. Azken talde horretan indarkeria tipologia bakarra nagusitzen da, guztizkoaren %66,3arekin, baina Bizkaian bizi eta tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean deritzonari loturiko tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen %25ek esan dute bi indarkeria tipologia bizi dituztela gaur egun.


**14. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia baten edo gehiagoren presentzia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005.**

Tipologiak	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean	Guztira
Indarkeria fisikoa bakarrik		1,3	0,6
Indarkeria sexuala bakarrik	4,2	3,8	2,3
Indarkeria ekonomiko bakarrik		8,8	4,0
Indarkeria psikologikoa bakarrik	16,7	47,5	65,0
Indarkeria soziala bakarrik		5,0	2,3
Indarkeria psikologikoa eta sexuala	16,7	7,5	5,6
Indarkeria psikologikoa eta ekonomiko	8,3	6,3	4,0
Indarkeria psikologikoa eta soziala	8,3	6,3	4,0
Indarkeria soziala eta ekonomiko	8,3	2,5	2,3
Indarkeria sexuala eta ekonomiko		2,5	1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala eta ekonomiko	4,2	1,3	1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala eta soziala	4,2	1,3	1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala eta fisikoa	4,2		0,6
Indarkeria psikologikoa, soziala eta ekonomiko	12,5	2,5	2,8
Indarkeria psikologikoa, soziala, ekonomiko eta fisikoa	8,3		1,1
Indarkeria psikologikoa, sexuala, soziala eta ekonomiko	4,2	3,8	2,3
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.



**19. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia baten edo gehiagoren presentzia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005.**




#### 4.4.3. Denboran irauten duten egoerak

20. grafikoa ikusten denez, tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldearen barruko

emakumeen aurkako indarkeria egoerek iraun egiten dute denboran, adierazitako tratu txararen taldean eta tratu txar teknikoaren taldean

**20. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren noiztik honakoa, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005.**



gertatzen den bezala. Horrela, nagusitasuna dute "10 urte baino gehiago" deritzonaren barruko kasuek (%74). Gainera, bitarte horri "6-10 urte" deritzona gehituz gero, tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean deritzonaren barruan sailkatutako emakume guztien arteko ia %86k orain dela sei urte baino lehenagotik jasaten dute egoera hori.

#### 4.4.4. Bikotekidea, tratu txarraren eragile nagusia: adina, ikasketa maila eta lan egoera

15. taulan berriro ere argi eta garbi ikusten da adierazitako tratu txarraren taldean eta tratu

txar teknikoaren taldean lehen identifikaturiko alderdietariko bat; hain zuzen ere, "bikotekideak" tratu txarraren eragileetatik duen protagonismoa, talde honen barruko egoera guztien %76,1ean. Bikotekideak tratu txarraren eragile nagusitzat duen protagonismoak, kasu honetan, sei puntutan gainditzen du tratu txar teknikoaren kasuan adierazitako ehunekoa (%70,1), baina tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean talde honen barruko kasuen edo emakumeen ikuspegia aintzat hartuta ez da halakorik gertatzen: %87,5 eta tratu txar teknikoaren kasuan guztizkoaren %96,5.

15. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako tratu txarren eragile nagusia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005.

Tratu txarreko egoeren eragilea	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean	Guztira
Bikotekidea	59,3	76,1	68,8
Semea(k)	11,1	9,8	16,1
Alaba(k)		4,3	6,3
Aita	11,1	3,3	2,7
Ama	3,7	1,1	1,8
Neba-arrebak	11,1	3,3	2,7
Familiako beste kide batzuk	3,7		0,9
Familiakoak ez diren pertsonak		2,2	0,9
Guztira	100	100	100

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Hurrengo tauletan, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko tratu txar teknikoaren taldearen barruan tratu txarrak eragiten dituenaren profila adierazten da, horren adina, ikasketa maila eta lan egoera aintzat hartuta, eta profil hori, neurri handian, tratu txar teknikoaren taldeko kasuetan adierazitako profilaren berdina da. Adinetik hasita, 16. taulan ikusten da, era-

gilearen adina zenbat eta handiagoa izan, tratu txarren presentzia hainbat eta handiagoa dela (tratu txarren eragilearen batez beteko adina 58,94 urte); hortaz, 50-64 tartean eta 65 edo gehiagoko tartean kasu guztien %73 biltzen da, tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean jasan duten emakume hauen aurkako indarkeriaren eragileei (bikotekideak) dagokienez.

**16. taula. Bikotekidearen adina, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragile nagusia denean. Ehunekoak. 2005.**

Adin taldeak	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean	Guztira
18 - 29	6,3	4,3	12,9
30 - 39	6,3	10,0	16,9
40 - 49	12,5	12,9	20,1
50 - 64	25,0	32,9	27,3
65 edo gehiago	50,0	40,0	22,8
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Batez besteko adina</b>	<b>60,50</b>	<b>58,94</b>	<b>50,36</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Era berean, bikotekidearen ikasketa maila handiagoak eragin zuzena dauka horrek tratu txarren eragiletzat duen protagonismo txikiagoan, eta alderantziz. 17. taulan ikusten denez, oinarrizko ikasketak edo horiek amaitu barik

dituztenen ehunekoak guztizkoaren %60koa da, tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean taldeko emakumeei tratu txarrak eragiten dizkieten bikotekideei dagokienez.

**17. taula. Bikotekidearen ikasketa maila, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragile nagusia denean, "Tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005.**

Ikasketa maila	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean	Guztira
Oinarrizkoak amaitu barik	25,0	11,4	3,2
Oinarrizkoak (OHO, Eskola Graduata, oinarrizko Batxilergoa)	37,5	48,6	39,5
Bigarren mailakoak (goiko Batxilergoa / BBB / UBI)	18,8	17,1	20,1
Lanbide ikasketak (L.H. I / L.H. II)	12,5	10,0	14,9
Unibertsitateko ertainak (diplomatura)	6,3	1,4	5,6
Unibertsitateko goi mailakoak (lizentziatura / doktoretza / gradu-ondokoa)	0,0	11,4	16,7
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

18. taula. Bikotekidearen lan egoera, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragile nagusia denean, "Tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005.

Oraingo bikotekidearen lan egoera	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean	Guztira
<b>AKTIBOAK</b>	37,5	44,3	67,9
a) Okupatuak	31,3	44,3	67,3
Autonomia	12,5	4,3	13,3
Herri Administrazioan lanean	0,0	1,4	1,8
Kontratu mugagabearekin lanean	12,5	34,3	43,3
Aldi baterako kontratuarekin lanean	6,3	2,9	7,9
Kontraturik gabe lanean	0,0	0,0	0,5
Etxeko langilea	0,0	1,4	0,5
b) Langabetuak	6,3	0,0	0,7
Langabeziako diru-laguntzarekin	0,0	0,0	0,2
Langabeziako diru-laguntzarik gabe	6,3	0,0	0,5
<b>EZ-AKTIBOAK</b>	62,5	55,7	32,1
Ikaslea	0,0	1,4	1,1
Etxekoandrea	0,0	0,0	0,0
Pentsioduna (Gizarte Segurantzaren)	56,3	51,4	28,9
Pentsioduna (ezgait. edo elbarr. pentsioa)	0,0	2,9	1,8
Jubilatua edo ezgait. pentsio eta diru-laguntza barik	0,0	0,0	0,0
Gizarte laguntzaren jasotzailea	6,3	0,0	0,2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa. 2005.

Berriro ere, tratu txarra eragiten duen bikotekidearen batez besteko adinak eragin zuzena dauka, bai lehen adierazitako hezkuntza ikuspegitik eta bai lan egoeraren ikuspegitik begirata; izan ere, 18. taulan ikusten denez, tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean taldean identifikaturiko bikotekide eragileen %55,7 ez-aktibo daude, eta gehienak pentsionistak dira (%51,4).

#### 4.4.5. Arrisku egoerako emakume talde baten identifikazioa

Laburbiltzeko, tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean sailkapenaren barruko emakume taldeak indartu egiten du "bitarteko posizioa", adierazitako tratu txarreko taldearen eta tratu txar teknikoko taldearen emaitzen artean. Joera orokortzat, esan

daiteke emakumeen aurkako etxe barruko "indarkeria kiribila edo zikloa" izenekoa fase aurreratua goan dagoela tratu txar teknikoa zentzu zorrotzearen kasuan, tratu txar teknikoaren kasuan baino. Ikerketa honetan, azken bi urteotan etxe barruko indarkeria jaso duen %5,2ko emakume kopurua identifikatu da, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakume guztiei dagokienez; hala ere, eta hau oraindik larriagoa da, eremu geografiko honetako emakume guztien beste %13,3 identifikatu dira eta horiek, eurek orain bizi dituzten egoerak aintzat hartuta, laster aldatu egin dezakete tratu txarraren jasotzailetzat duten iritzia, euren burua oraindik (informazioa biltzeko unean) ez baitute halakotzat hartzen, eta horiek, beraz, tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean taldean sartu ditugu.

Argiago esateko, tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean taldean sailkatutako emakumeen taldea "arrisku taldea" da. Emaitzen arabera, indarkeriari dagokionez, esan daiteke Bizkaiko Lurralde Historikoan, gaur egun, emakumeen aurkako "substratu" handia dagoela. Tratu txarreko egoeren substratu hori "ezkutuan" dago oraindik. Hala eta guztiz ere, substratu horrek "azalertzeko" aukera handia dauka, eta horrek, gure ustez, adierazitako tratu txarraren barruko emakume-talderako lekualdatzea eragingo du.

#### 4.5. "ADIERAZITAKO TRATUTXARRA" AZKEN BI URTEOTAN: AZTERKETA BEREZIA

Ikerketa honetan Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen %5,2 identifikatu dira eta horiek esan dute egoeraren batean sentitu edo pentsatu dutela familiakoren batek nahiz eurekin bizi den pertsonaren batek tratu txarra eragin diela, edo harreman afektibo edota sentimentalen batean tratu txarra jaso dutela, azken bi urteotan.

Aurreko ataletan, eta konparazio ikuspegi bikoitza mantenduz, bai tratu txar teknikoan sartzen den emakume-talderari eta bai Bizkaiko emakume guztien talderari dagokionez, hurbilketa bat egin dugu adierazitako tratu txarreko taldearen barruko emakumeen ezaugarri soziodemografikoetara eta indarkeria egoeren tipologiara. Horien identifikazioi ikerketa honetan izan duen garrantzia aintzat hartuta, sakondu egin nahi izan dugu Bizkaian bizi eta galdeketa 24. galderari baieztoko erantzuna eman dioten emakumeen berezitasunetarako batzuetan.

##### 4.5.1. Indarkeria psikologikoaren nagusitasuna

19. taulan, argi eta garbi ikusten da indarkeria "psikologikoaren" nagusitasuna; izan ere, azken bi urteotan indarkeria motaren bat bizi eta sentitu duten Bizkaiko emakumeen %77,4k horixe aipatu dute. Emaitza horiek indartu egiten dituzte aurreko ataletan adierazitako planteamenak, eta beraz, indartuta gelditzen da tratu txar psikologikoko egoera horretan dagoen emakume taldearen barruan duen presentzia.

#### 19. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005.

Indarkeria mota	Adierazitako tratu txarra
Psikologikoa	77,4
Fisiko	6,5
Fisiko eta psikologikoa	16,1
Guztira	100

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

##### 4.5.2. Oraingo bikotekidea edo bikotekide ohia, tratu txarraren eragile nagusia, eta matxismoa, indarkeria eragiten duen faktore nagusia

Azken bi urteotan etxe barruko indarkeria egoeraren bat jasan duten emakumeen erasotzaile nagusia "bikotekidea" da. Horrela, emakume horien %45,2k berari ematen diote protagonismoa.

#### 20. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragilearen identifikazioa, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza\*)

Tratu txarraren eragilea	Adierazitako tratu txarra
Bikotekidea	45,2
Semea(k)	12,9
Alaba(k)	6,5
Aita	9,7
Ama	3,2
Neba-arrebak	3,2
Familiako beste kide batzuk	9,7
Familiakoak ez diren pertsonak (bikotekide ohia)	19,4

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

\* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketara %100 baino gehiago da.

Hala eta guztiz ere, 20. taulan beste bi gauza ere gelditzen dira agerian: alde batetik, "bikotekide ohiek" presentzia dute tratu txarren eragiletzat, kasu guztien %19,4arekin; bestetik, "semeek" (%12,9) eta "alabek" (%6,5) ere eginkizun garrantzitsua dute horretan, eta bien arteko ehunekoak %19,4koa da.

Emakume talde horri tratu txarren eragileen arazo batzuen eraginari buruz ere galdetu zitzaion, etxe barruko indarkeria egoerari dagokionez. 21. taulan argi ikusten da arazo horiek banaka nahiz taldeka duten eragina. Bertan ikusten denez, aipagarriak dira etiologiari loturiko arazoak, erantzun guztien %80 baino gehiagorekin, eta gainerako %20 arazo anitzekoak dira. Lehenengo barruan, arazo nagusia "matxismoa" da, guztizkoaren %38,7arekin, eta horren atzetik "arazo psikikoak" (%16,1) eta "alkohol gehiegi edatea" (%12,9) datoz.

**21. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragilearen arazoak edo patologiak, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak . 2005.**

Tratu txarraren eragilearen arazoak	Adierazitako tratu txarra
Alkohol arazoak bakarrik	12,9
Droga arazoak bakarrik	3,2
Behin-behineko lan egoera bakarrik	6,5
Langabezia bakarrik	3,2
Laneko presioa bakarrik	0,0
Arazo psikikoak bakarrik	16,1
Matxismoa bakarrik	38,7
Alkohola eta matxismoa	6,5
Alkohola eta ludopatia	3,2
Drogak eta behin-behineko lan egoera	3,2
Langabezia eta arazo psikikoak	3,2
Ettxera eramandako eskola arazoak	3,2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

Azken batean, generoen arteko desberdintasunean euskarririkotiko sozializazioak eragin nabaria dauka emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan, Bizkaiko oraingo gizartean. Matxismoak eta sozialak ez diren beste arazo edo patologia batzuek, izan ere, indarkeria horien katalizatzailea den substratu kulturala osatzen dute

#### 4.6. INDARKERIA EGOERAK ZITUEN HARREMANA APURTZEAREN ONDORIOAK: ERAGINPEKO EMAKUMEEN IRITZIA


Galdeketa egitean, orain bikotekiderik eduki ez baina azken hamar urteotan bikote-harremana apurtu duten emakumeak identifikatu dira. Jakin nahi izan dugu emakume horien aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentziak zein neurrian eragin duen harremanaren apurtze hori.

21. grafikoan ikusten denez, egoera hori, gehienbat, adierazitako tratu txarreko egoeran dagoen emakume taldearen artean agertzen da, eta hamar emakumetik seirengan baino gehiagorengan dauka eragina (%63,6). Aldiz, beste bi taldeetan, bai Bizkaiko emakume guztien taldean eta bai tratu txar teknikoaren taldean dauden emakumeen artean, egoera horrek eragin nahiko urriagoa izan du harremana apurtzeko (%13,2 eta %9,1 hurrenez hurren).

Bikote-harremanaren eta etxe barruko tratu txarreko egoera adierazi duten emakumeen arteko erlazio hori aintzat hartuta (erlazio logikoa, nolabait ere), 22. taulan apurtzeak emakume horiengan izan dituen ondorioak ikusten dira. "Arazo emozionalak", "arazo ekonomikoak" eta "familiakoen ardura osoa" dira ondorio nagusiak, beste batzuen aurretik, esate baterako, "ahozko mehatxuak", "jazarpena" edo "erasoak".

Era berean, aipagarria da bi arlotan ez dagoela ondorioak: "beste familiako batzuekiko arazoak" eta, batik bat, "arazoak baliabide sozialak lortzeko orduan". Azken emaitza hori aintzat hartuta, pentsatu egin behar da ea baliabide sozialek zer leku duten halako harremanak apurtzen direnean, hau da, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeradun harremanak apurtzen direnean; izan ere, itxuraz baliabideok eskuratzeko

21. grafikoa. Indarkeria egoera batek Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren bikotekiderik gabeko emakumeen harremanaren amaieran duen eragin erabakigarria, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005.



22. taula. Indarkeria egoera zuten harremanak apurtzearen ondorioak: Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren inkestaturen iritzia, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza\*)

Harremana amaitzearen ondorioak, "Adierazitako tratu txarra" taldeko emakumeengan (orain bikoterik ez dutenak)	Maiztasun			
	Sarritan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ere ez
Ahozko mehatxuak	28,6	14,3		57,1
Erasoak			14,3	85,7
Jazarpena	14,3		14,3	71,4
Beste bikote-harreman batzuetan sartzea	28,6			71,4
Seme-alabekiko arazoak	14,3			85,7
Beste familiako batzuekiko arazoak				100,0
Lan arazoak	14,3			85,7
Arazo emozionalak (depresioa, antsietatea, etab.)	28,6	57,1		14,3
Arazo ekonomikoak	42,9	14,3		42,9
Arazoak baliabide sozialak lortzeko orduan				100,0
Familiakoen ardura osoa	57,1			42,9
Beste ondorio batzuk, zeintzuk?				100,0

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

\* Erantzun anitza: ehunekoen batuketak %100 baino gehiago ematen du.

arazorik egon ez arren, horiek ez dira funtsezkoak edo ezinbestekoak emakume horientzat.

Horrenbestez, emakume talde honek dioenez, etxe barruko indarkeria egoerak eragin erabakigarria izan zuen bikote-harremana apurtzean, eta apurtze horrek ondorioak izan zituen, batez ere, alderdi emozionalean eta ekonomikoan, baina baita bizi-fase berri bati aurre egiteko orduan ere, familiako beste kide batzuk euren ardura-pean mantenduz (batik bat, seme-alabak).

#### 4.7. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA EGOEREN PRESENTZIA SOZIALA


Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak zuzenean edo zeharka identifikatzeaz gain, egoera

horiei buruz inguru hurbilean dagoen ezagupen maila ere jakin nahi izan dugu. "Inguru hurbila" esapiderean barruan, emakumeen eguneroko bizitzaren ohiko eszenatokietan garatzen diren harremanak sartzen dira, hau da, familia, lagunak, ezagunak, auzokoak eta lankideak.

Galdeketako beste galdera batzuen kasuan ez bezala (inkestaturiko emakumearen egoera pertsonalera bideraturiko galderak), atal honetan ematen den informazioa banakakoa gainditu eta sozialean kokatzen da. Horrela, esan daiteke Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriak "presentzia soziala" duela.

Horrela, 22. grafikoa ikusten denez, Bizkaiko emakume guztien %18k esan dute emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak ezagutzen dituztela, inguru hurbileko egoerak. Grafikoa adierazitakoaren arabera, gainera, ezagupen maila hori handiagoa da eurak ere tratu txarren

22. grafikoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren ezagupena, inguru hurbilean emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



jasotzaileak diren emakumeen artean (%29), baita tratu txar teknikoa dutenen artean ere (%24,8).

Ulergarria da indarkeria egoera hurbiletik ezagutu duten emakumeek Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren gaineko ezagupen handiagoa edukitzea, bai egoera hori

euren bizitzako erdigunea delako, bai familiaren barruan kasuak egon daitezkeelako, besteak beste. Hala eta guztiz ere, horrek ez dio garrantzirik kentzen halako egoeren presentzia sozialaren (Bizkaian) maila adierazten duen ehunekoari, kontuan hartuta emakume bizkaitarren %18k in-



guru hurbilean gutxienez etxe barruko indarkeria egoera bat ezagutzen duela.

#### 4.7.1. Emakumearen aurkako indarkeria: Bizkaiko emakumeen arazo nagusienetarikoak

Hori guztia aintzat hartuta, eta emakumeen aurkako etxe barruko inguru hurbileko indarkeria egoeren ezaugarriak azaldu baino lehen (Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez), galdeketa-aren diseinuan egoera horien identifikaziorako galderetarako trantsiziotzat hartutako galdera baten emaitzak azaldu behar dira. Galdera horretan, emakumeei euren eta inguruko emakumeen oraingo bi arazo nagusiak azaltzeko eskabidea egiten zitzairen.

23. taulan eta 23. grafikoan egiaztatzen denez, "etxeke lanak gutxietsita egotea" eta "emakumearen lan baldintza txarragoak" dira arazorik larrienak, Bizkaiko emakumeek emandako iritziaren arabera, eta horien ehunekoak %42,4 eta %41,4 dira, hurrenez hurren. Gure ustez, "etxeke lanak gutxietsita egotea" aukeran jasotako erantzunak estu lotuta daude emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria psikologikoaren mota bat adierazten zuten egoeretariko batekin: "ez du baloratzen zeuk egindako lana". Galdera horrek, dakigunez, oinarriko protagonismoa hartu du ikerketa honetan, ez Bizkaian bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko tratu txarreko

egoera nagusia delako bakarrik, baita sailkapenean talde berri baten sorrera eragin duelako ere: tratu txar teknikoaren zentzu zorrotzean.

Bi arazo horien atzean, "laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko arazoak" daude (%35,1) eta oso adierazgarriak dira "emakumearen aurkako indarkeria egoerak", emakume guztien ia %31k arazo hori aipatu baitute. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria egoerak laugarren lekuan kokatzen dituzte Bizkaiko emakumeek, eta horien ustez, arazo handiagoak dira, esate baterako, "emakumearen eginkizunaren onarpen sozial urria", "seme-alabak heztearen zailtasuna" eta beste faktore batzuk, adibidez, "bakardadea" edo "pentsioak"; horiek "beste arazo batzuk" deritzon sartzu dituzte inkestatuek, batik bat adin nagusia dutenek.

Emakumeen arazoaren hierarkia hori mantendu egiten da tratu txar teknikoaren barruan sartuta dauden emakumeen kasuan. Ez da halakorik gertatzen etxe barruko tratu txarra (azken bi urteotan) adierazi duten emakumeen taldearen kasuan; izan ere, kasu horretan, "emakumeen aurkako indarkeria egoera" bigarren arazo nagusia da talde horretako emakumeen %38,7aren ustez, eta horren aurretik "etxeke lanak gutxietsita egotea" baino ez da sartzu (%48,4). Horrek agerian jartzen du, besteak beste, generoko indarkeria egoerak eraginpekoen artean duen eragina; izan ere, gure gizarteko


23. taula. Emakumeen arazo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza\*).

Emakumeen arazo nagusiak	Emakume taldea		
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Guztira
Laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko arazoak	22,6	38,6	35,1
Emakumearen lan baldintza txarragoak	32,3	41,8	41,4
Etxeke lanak gutxietsita egotea	48,4	52,9	42,4
Emakumearen eginkizunaren onarpen sozial urria	29,0	17,0	18,5
Seme-alabak heztearen zailtasuna	19,4	13,7	13,3
Emakumearen aurkako indarkeria egoerak	38,7	23,5	30,9
Beste batzuk	9,7	13,7	19,0

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

\* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketak %100 baino gehiago ematen du.

### 23. grafikoa. Emakumeen lau arazo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza).



emakumeengan eragin zuzena duten beste arazo batzuek baino garrantzi handiagoa dauka.

#### 4.7.2. Kasuen nagusitasuna familiakoa ez den inguru hurbilean: lagunak eta ezagunak

Inguru hurbilean emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak ezagutzen dituzten emakumeei, egoera horiek, euren eragileak eta tratu txarraren mota identifikatzeko eskabidea egin zitzaien, eta egoera horren salaketarik dagoen ala ez dakiten esateko ere eskatu zitzaien.

Egoera horien lehenengo ezaugarritik hasita, 24. taulan inguru hurbileko etxe barruko indarkeria jasan duten emakumeen profil desberdinak ikusten dira. Zalantzarik gabe, gauzarik aipagarriena kasu ezagun guztien %77,8 "familiaratik kanpoko inguru hurbileko emakumeak" deritzon biltzea da. Horrela, etxe barruko tratu txararen biktima nagusitzat identifikaturiko inguru hurbileko emakumeak "lagunak" eta "ezagunak" dira, eta bi horien artean kasu guztien %64 biltzen dituzte.

Etxe barruko indarkeria egoerak jasan dituzten edo jasaten dituzten inguru hurbileko

### 24. taula. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren biktima den emakumea, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Inguru hurbilean etxe barruko indarkeria egoera jasaten duen emakumearen identifikazioa	%
<b>Familiako emakumeak</b>	<b>22,2</b>
Ama	1,9
Alaba	3,7
Ahizpa	6,5
Amaginarreba	0,9
Koinata	2,8
Iloba	0,9
Lehengusina	2,8
Loba	0,9
Izeba	1,9
<b>Familiaratik kanpoko emakumeak</b>	<b>77,8</b>
Lagunak	33,3
Ezagunak	30,6
Auzokoak	10,2
Identifikatu barik	3,7
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

emakume guztien gainerako %22,2 “familiako emakumeak” dira, batez ere “ahizpak”, “alabak”, “koinatak” eta “lehengusinak”. 25. taulako emaitzak aztertuta ikusten denez, familia inguruan aurkituriko kasuak eta, beraz, emakumeengandik hurbilago dauden kasuak apur bat kronikoago bihurtuta daude denboran, familia

ingurutik kanpoko kasuak baino. Horrela, familia inguruan tratatu txarrak jasotzen dituzten emakume guztien ia %46k 6 urte edo gehiago egin dute egoera horretan, eta aldi hori %31ekoa da, familiatik kanpoko inguruan dauden kasuei dagokienez. Agerikoa da ezaugarri horiek guztiak ezagutzeko aukera ematen duten informazio itu-

### 25. taula. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren iraupena, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.

Inguru hurbilean etxe barruko indarkeria egoera jasaten duen emakumearen identifikazioa	Noiztik hona				
	Urte 1 baino gutxiago	1-5 urte	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Guztira
Familiakoak	20,8	33,3	12,5	33,3	100
Familiatik kanpokoak	28,4	40,7	11,1	19,8	100

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

rriak eta bideak anitzak direla. Kasu jakinarekiko hurbiltasun handiagoak fidagarritasun handiagoa ematen dio horri buruzko informazioari.

Laburtzeko, “familiatik kanpoko” inguruetan, Bizkaiko emakumeen eguneroko bizitzako inguru hurbileko etxe barruko indarkeria egoeren ezagupenak pilatzen dira. Gertaera hori, gainera, zeharkakoa eta homogenea da, azterketan erreferentziatzen erabili diren hiru emakume taldeetan, lorturiko emaitzak aintzat hartuta. Hala eta guztiz ere, inguru hurbileko egoera horien iraupenaren maiztasuna txikiagoa da, emakumeen aurkako indarkeria kasuek familia inguruetan duten iraupenaren ezagupena baino.

#### 4.7.3. Senarra: tratatu txarraren eragile nagusia, inguru hurbil horretan ere

24. grafikoan “senarrak” inguru hurbileko emakumeen tratatu txarraren eragile nagusitzat duen garrantzia agertzen da, Bizkaiko emakume guztiei dagokienez: kasu guztien %81,5. Ehuneko hori %89,7koa da, tratatu txar teknikoaren kategorian sartuta dauden emakume guztiei dagokienez, eta %66,7ra murrizten da, adierazitako tratatu


txarreko taldearen barruan dauden emakumeen kasuan, bertan beste irudi batzuk agertzen baitira (bikotekidea, bikotekide ohia, etab.).

#### 4.7.4. Indarkeria fisikoaren eta psikologikoaren baterako presentzia


25. grafikoan ikusten denez, emakumeen aurkako inguru hurbileko indarkeria egoeren (Bizkaiko emakumeen arteko egoerak) %61,1 tratatu fisikoarekin eta psikologikoarekin batera gertatzen dira. Indarkeria konbinazio hori %63,2koa da, tratatu txar teknikoak duten emakumeen taldearen barruan. Hala eta guztiz ere, adierazitako tratatu txarra duten emakumeen artean, indarkeria psikologikoko kasu gehiago ezagutzen dira (%55,6), hori eta indarkeria fisikoa batuta dituzten kasuak baino (%44,4).

Ikerketa honetako emaitzak azaltzeko erabili ditugun hiru emakume taldeek adierazitako indarkerien tipologiaren barruko aniztasun hori aintzat hartuta, honako hausnarketa hau egin daiteke: ea zein neurritan den errazagoa edo egingarriagoa emakumeen aurkako inguru hurbileko bi indarkeria moten presentzia (psikologikoa eta fisikoa) batera azaltzea, iritzia ematen duen

24. grafikoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragilearen identifikazioa, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



25. grafikoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



pertsonak (emakumea) gertaera hori jaso ez duenean, kontuan hartuta adierazitako taldearen barruko emakumeek indarkeria psikologikoari soilik loturiko kasuen ezagupen handiagoa dutela.

Gure ustez, izan ere, indarkeria psikologikoari loturiko egoerak, segurutik, gutxien ikusten direnak dira; horrenbestez, halako egoerak hautemateko aukerarik gehien egoera horretan esperientzia (ezagupena) duten emakumeek dute, eta egoera horretatik urrunen dauden emakumeek, berriz, beste adierazpen ikusgarriagoren bat behar dute, esaterako, indarkeria fisikoa, kasuan kasuko harremanean indarkeria psikologikoa ere badagoela ondorioztatzeko.

#### 4.7.5. Salaketarik eza eta indarkeria egoerak dituen harremanaren mantenamendua

Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren presentzia sozialaren mailaren emaitzekin amaitzeko, 26. grafikoan aditzera ematen da ea emakume bizkaitarrek, inguru hurbilean tratu txarren kasuak daudela jakinez gero (22. grafikoari baiezkotzat zena


eman dioten emakumeak), zein neurritan dakiten kasu horiek salatu diren ala ez.

Nabarmendu beharreko alderdi nagusia “ezetzak” hiru emakume taldeetan duen nagusitasuna da: %38,8 guztizkoaren kasuan; %41,7 tratu txar teknikoaren kasuan, eta azkenik, %57,1 etxe barruko indarkeria egoerak izan dituztela adierazi duten emakumeen taldearen kasuan.

Emaitza horiei, alde batetik, emakumeak indarkeria egoera salatzeke borondaterik eza (“ez, berak ez du nahi”) onartuta duten kasuen ehunekoak gehituz gero, eta bestetik, salaketa kendu izanaren kasuen ehunekoak (“bai, baina kendu egin du salaketa”) eta harremanetan berriro hasteko kasuen ehunekoak (“bai, baina berarekin itzuli naiz”) gehitzen bazaizkie, esan daiteke gure gizartean oraindik ere gehienbat mantendu egiten direla emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak dituzten harreman afektiboak edota familiakoak.

Agerikoa da salaketarako pausoa emateko orduan esku hartzen duten faktoreen aniztasuna; izan ere, salaketa da emakumearen aurkako indarkeria egoerak dituzten harreman afektiboak edota familiakoak apurtzeko adierazpen goren eta

26. grafikoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuan salaketaren ezagupena, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.



ikusgarriena. Hurrengo atalean gai hau aztertuko dugu; hain zuzen ere, Bizkaiko emakumeek halako harremanak mantentzean edo apurtzean esku hartzen duten faktoreen aniztasuna ikusiko dugu.

#### 4.8. HALAKO HARREMANAK APURTZEKO OZTOPOAK

Galdeketa diseinatzean, kontuan hartu ziren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak dituzten harremanak ez apurtzeko oztopoak, hau da, Bizkaiko emakumeen ustez horre-

tarako dauden oztopo nagusiak. Partaideei hiru zergati aukeratzeko eskabidea egin zitzaien, zerrendaturiko hamabi aukeraren artean; aukera horien helburua, izan ere, halako harreman afektiboaren edota sentimentalaren mantenamenduan esku hartzen duten oztopo nagusiak azaltzea zen.

26. taulan gertaera oso adierazgarria ikusten da: euren burua tratu txarreko emakumetzat hartzeaz, tratu txar teknikoari loturiko emakumetzat sailkatzeaz edo inguru hurbileko etxe barruko indarkeria egoerak ezagutzeaz gain, adostasuna gertatzen da emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak ez apurtzeko hiru zer-


26. taula. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera duten harremanak apurtzeko oztopo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza\*).

Etxeko indarkeria egoeradun harremanak ez apurtzearen zergatiak	Emakume taldea				
	Adierazitako tratu txarra	Tratu txar teknikoa	Egoerak ezagutzen dituzte	Ez dute egoerarik ezagutzen	Guztira
Bikotekidearen mendekuaren beldurragatik	45,2	36,6	34,3	43,0	41,4
Baliabide ekonomikoak ez edukitzeagatik	48,4	60,1	50,0	60,0	58,2
Seme-alabengatik (familia unitatea mantendu)	32,3	30,7	27,8	27,4	27,5
Familiakoak zaintzeagatik (zaharra, etab.)	0,0	1,3	1,9	0,0	0,3
Familiako gainerako kideengatik (ez dute onartzen)	0,0	0,0	0,0	0,4	0,3
Erakundeek laguntzarik ez emateagatik (baliabideak, zerbitzuak, etab.)	0,0	2,6	3,7	0,8	1,3
Aldatu egingo direla pentsatzeagatik	3,2	3,3	12,0	3,7	5,2
Maite dutelako (mendekotasun emozionala)	16,1	10,5	17,6	11,2	12,3
Oraingo kulturarengatik eta balioengatik (matxistak)	0,0	5,2	4,6	2,8	3,2
Bakardade sententzioarengatik	0,0	2,6	2,8	2,2	2,3
Lotsarengatik (besteek esango dutena)	3,2	3,3	2,8	2,6	2,7
Beste zergati batzuk	12,9	16,3	18,5	10,5	13,1

Iturria: BEHATOKI, S. L. enpresak egindako ikerketa.2005.

\* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketak %100 baino gehiago ematen du.

27. grafikoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera duten harremanak apurtzeko lau oztopo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza\*)



gati nagusiak identifikatzeko orduan. Eta zergati horiek honako hauek dira: "baliabide ekonomikorik ez edukitzea", "bikotekidearen mendekuaren beldurra" eta "seme-alabak (familia unitatea mantentzea)". Zergatien hierarkia hori 27. grafikoan ikusten da, eta bertan, gainera, laugarren alderdi bat ere jasota dago, "maite dutelako", eta hori ehuneko-distantzia nahiko handian ikusten da.

Era berean, agerikoa da desberdintasun handiren bat dagoela hiru oztopo nagusien garrantzi mailan ere, kasuan kasuko emakume taldearen arabera. Horrela, azken bi urteotan tratu txarrak jasan dituztela adierazi dutenen artean, indarkeria-zergatiak (mendekuen beldurra) oztopo ekonomikoaren ehuneko oso antzekoa dauka (emakumeen %45,2 eta %48,4k aipatu dute hori, hurrenez hurren), eta tratu txar teknikoaren taldearen barruan dauden emakumeen kasuan alderantzizkoa gertatzen da, hau da, faktore ekonomikoa da garrantzitsuena (emakume guztien %60,1).

Faktore ekonomikoen (independentziarik eza), indarkeria faktoreen (mendekuen beldur

eta familia-faktoreen (ama/seme-alabak) nagusitasuna ez ezik, aintzat hartu behar dira emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak apurtzea oztopatzen duten beste faktore batzuk ere. 26. taulako emaitzetara itzulita, argi ikusten da dimentsio kulturalak ("kultura/balio matxistak"), sozialak ("lotsa, besteek esango dutena"), indibidualak ("bakardade sentazioa") eta instituzionalak ("erakundeen laguntzarik eza") ehuneko oso txikiak dituztela erantzun guztien multzoan.

Maila indibidualaren barruan ere, emakumeek eurek adierazitako zergati bat dago ("beste zergati batzuk" kategorian). Horrela, etxe barruko indarkeria egoeran dauden emakumeen "atoestimu ezak" oztopatu egiten du egoera hori apurtzea, eta horrek, gainera, erantzunen ehuneko handia izan du (emakume guztien %5,5). Zalantzarik gabe, emaitza horrek agerian jartzen du emakumeen nortasun indibidualean gertatzen den kaltea, etxe barruko indarkeria egoeren menpe egotearen eraginez; hain zuzen ere, anulatorik gelditzen dira pertsonatzat eta, gainera,

ez dira gauza egoera hori apurtzeko erabakia hartzeko; horrek ageriko ondorio psikologikoak izaten ditu.

Laburtzeko, informazioaren bidez, besteak beste, Bizkaiko emakumeek generoko laugarren arazo nagusiari buruz duten iritzia ikusten da. Iritzi batzuk legitimitate maila handiagoarekin hartzen dira, indarkeria egoerak eurengan modu zuzenagoan eta hurbilagoan eragiten duen neurrian. Hala eta guztiz ere, emaitzek agerian jarri dutenez, Bizkaiko emakume guztiak egoerari buruzko diagnostiko bera egiten dute; hain zuzen ere, faktore ekonomikoak (independentziarik eza), indarkeria (mendekuen beldurra) eta familia-faktoreak (ama/ seme-alabak), guztiak batera edo modu independentean, oztopo nagusiak dira emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak dituzten harreman afektiboak edota familiakoak apurtzeko.

Ez da pentsatu behar arlo instituzionalen, kulturalen, axiologikoan, sozialean eta indibidualean kokaturiko faktoreek inolako eraginik ez dutenik. Baina emaitzek agerian jartzen dute faktore horiek hiru faktore nagusien menpe


daudela (ekonomikoa -independentziarik eza-, indarkeriakoa -mehatxuen beldurra- eta familiarikoa -ama/seme-alabak-, emakumerik gehienek hiru horiek adierazi baitituzte).

Eta faktoreen identifikazioan dagoen kointzidentzia hori aintzat hartu behar da, esate baterako, halako egoerak zuzentzeko neurrien izaera edo ezaugarriak aukeratzeko, egoera horiek Bizkaiko emakume guztien %18k ezagutzen baitituzte, inguru hurbileko egunerokotasunean. Neurri horien adierazpenetariko bat, izan ere, oraingo baliabideak (erakunde mailakoak edo bestelakoak) gizarte osoaren eta, batez ere, emakumeen esku jartzea da, halako indarkeria egoerak ezabatu ahal izateko.

#### 4.9. ORAINGO LAGUNTZA BALIABIDEEN EZAGUPEN MAILARI BURUZ: ZABALKUNDE AHALEGIN HANDIAGORANTZ

Zalantzarik gabe, 28. grafikoan, gure iritziz, ikerketa honetako beste emaitza garrantzitsuene-

28. grafikoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak daudenean egin beharrekoaren eta joan beharreko lekuaren ezagupena, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.





tariko bat agertzen da. Horrela, emakumeei emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak gertatzen direnean "zer egin edo nora joan" zein neurritan dakiten galdetzen zaienean, %40,2k erantzun dute ez dakitela zer egin edo nora joan (%32,4k "ez" eta %7,8k "ez daki/ez du erantzun").

Ezagupen eza hiru puntu handiagokoa da (%43,1) tratu txar teknikoaren taldean dauden emakumeen artean (%33,3 "ez" eta %9,8 "ez daki/ez du erantzun"). Hala ere, garrantzitsuena ezagupen eza hori etxe barruko adierazitako tratu txarraren (azken bi urteotan) taldearen barruko emakumeen artean oraindik ere handiagoa izatea da: %61,3 (%58,1 "ez" eta %3,2 "ez daki/ez du erantzun").

Galdera horren inguruko interpretazio faktoreen eragina egon daiteke, ikerketan parte hartu duten emakumei dagokienez, galdera orokorrean eta kasu bakoitza aintzat hartu barik egin baitzen; hala ere, esan daiteke azken bi ur-

teotan etxe barruko indarkeria egoera izan duten Bizkaiko hamar emakumetik seik baino gehiagok haxe uste dutela: ohikoena baliabideak nahiz prozedurak ez ezagutzea da, instituzionalak eta bestelakoak. Bestalde, Bizkaiko hamar emakumetik lauk ezagupen eza adierazten badute, gainera, emaitza horiek zabalkunde maila (dimentsio kuantitatiboa) eta, batik bat, publizitatearen eraginkortasuna (dimentsio kualitatiboa) nabarmentzen dute.

Agerikoa da erakundeen baliabideak hiritarregana hurbiltzeko egin daitezkeen ekintzen arrakastan eragina duten aldagaiak asko direla. Hala eta guztiz ere, ikerketa honetan lortu diren emaitzetan oinarrituz, esan daiteke gaur egun lubaki edo distantzia handia dagoela bi eragile horien artean (erakundeak eta hiritarrak), emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan jarduteko estrategia eta laguntza berezien mailan, Bizkaiko Lurralde Historikoan.





## V. kapitulua

Emaitzen laburpena



## 5. EMAITZEN LABURPENA

Ondoren, ikerketan zehar adierazi diren emaitzarik adierazgarrienak azalduko ditugu laburbilduta. Ikerketaren helburua kontuan hartuta, agerikoa da planteamendu batzuek ñabarduren aberastasun handiagoa dutela analisiaren kapituluan.

- **Diseinu metodologikoa**

1. Telefonozko 601 galdeketa egin zaizkie Bizkaian bizi diren 18 urteko edo gehiagoko emakumeei. Laginaren estatistika akatsaren muga %4koa da, eta konfiantza maila, berriz, %95,5koa.
2. Lehenengoz, Bizkaian emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuak identifikatu dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen artean zuzenean jasota, zeharreko iturririk erabili gabe (salaketak, laguntzak, etab.).
3. Erabilitako prozesu metodologikoa auzazko aurkikuntzarantz orientatu da, eta ez emakumeen aurkako indarkeria egoera horien bilaketarantz.
4. Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko ahalezko indarkeria egoerak hamalau (14) modutan laburbildu dira eta horiek, halaber, bost (5) tipologiatan sartu dira: "indarkeria fisikoa", "sexuala", "ekonomikoa", "psikologikoa" eta "soziala".
5. Hiru (3) emakume talde edo sailkapen erabili dira, etxe barruko indarkeriarekin orain duten erlazioaren arabera: "adierazitako tratu txarra", "tratu txar teknikoa" eta "tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean".

- **Oinarrizko adierazleak**

6. Bizkaian bizi diren emakume guztien %5,2k esan dute azken bi urteotan etxe barruko indarkeria egoerak jasan dituztela edo jasaten dituztela (adierazitako tratu txarra).
7. Bizkaian bizi diren emakume guztien %25,5ek diote gaur egun sarritan edo

batzuetan jasaten dutela emakumeen aurkako etxe barruko hamalau indarkeria egoerarikoren bat -galdeketa adierazitako egoerak- (tratu txar teknikoaren taldea).

8. Bizkaian bizi diren emakumeen %13,3k diotenez, gauegun sarritan edo batzuetan jasaten dute galdeketa adierazitako emakumeen aurkako etxe barruko hamalau indarkeria egoerarikoren bat, "ez du baloratzen zeuk egindako lana" (21.12 gald.) egoeran soilik erantzuten dutenen kasuan izan ezik (tratu txar teknikoa zentzu zorrotzean taldea).
9. Bizkaian bizi diren emakume guztien %18k diotenez, inguru hurbilean emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak ezagutzen dituzte.

- **Ezaugarri soziodemografikoak**


10. Emakumearen adina zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aukera handiagoa tratu txar teknikoaren barruan egoteko, eta alderantziz.
11. Aldiz, erlazio hori apurto egiten da adierazitako tratu txararen kasuan:
  - a. 50-64 urteko taldean eta 65 urteko edo gehiagoko taldean tratu txarrak adierazi dituzten emakumeen ehuneko bera biltzen da, taldearen guztizkoaren %25,8.
  - b. Tratu txarrak adierazi dituzten 18-29 urte bitarteko emakumeen ehunekoak gainditu egiten du hurrengo adin-taldearen (30-39) ehunekoa, eta ehuneko hori 40-49 urteko taldean adierazitakoaren berbera da: %19,4.
  - c. Bizkaian bizi eta 1976-1987 bitartean jaiotako (18-29 urte) emakumeen kopuru adierazgarri horren identifikazioa nahiko handiagoa da, adin talde horren garrantzi demografikoa baino (%15,3).

12. Tratu txar teknikoaren taldearen barruko emakumeek profil soziodemografiko oso berezia dute: guztien %91,5ek bikotekidea dute eta berarekin bizi dira (batez beste 29,49 urte); %85,6 ezkondu daude; %89,5ek seme-alabak dituzte (emakume bakoitzeko 1,64 batez beste, eta batez besteko adina hogeita hamar urtekoa), eta emakume guztien %81ek ez du bizikidetzaren unitaterako ekarpen ekonomiko nagusia egiten.
13. Adierazitako tratu txarraren taldearen barruko emakumeen kasuan ere nagusitu egiten da bikotekidearekiko bizikidetzaren (taldeko emakume guztien %58,1), eta ezkonduen ehunekoa ere oso handia da (%45,2). Hala eta guztiz ere, talde horrek orain bikotekiderik ez duten emakumeen ehunekorik handiena dauka (%32,3), baita bananduen ehunekorik handiena (%16,1) eta dibortziatuen ehunekorik handiena ere (%3,2), eta seme-alabekin bakarrik bizi diren ehunekorik handiena (%16,1) eta bizikidetzaren unitaterako ekarpen ekonomiko nagusia egiten dutenen ehunekorik handiena ere bai (%35).
14. Hortik ondorioztatzen denez, Bizkaian bizi diren adierazitako tratu txarraren taldearen barruko emakumeek bi profil desberdin dituzte:
  - a. Alde batetik, emakume batzuen kasuan, tratu txarraren egoerak berak eragin erabakigarria izan du euren oraingo bizikidetzaren egoeran, eta horrela, gaur egun ez dute bikotekiderik.
  - b. Bestalde, beste emakume batzuk (taldeko emakume guztien %58, gutxi gorabehera) oraindik ere tratu txarraren eragilearekin bizi dira.
15. Ikerketa honen emaitzak aintzat hartuta, gainera, erlazio batzuk ezar daitezke. Honako hauek dira garrantzitsuenak:
  - a. Bizikidetzaren unitateko kide biek egindako ekarpen ekonomikoan zenbat eta parekotasun handiagoa egon, hainbat eta aukera gutxiago dago adierazitako tratu txarrek eta tratu txar teknikoak identifikatzeko.
  - b. Emakumearen maila edo posizio soziala zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aukera gutxiago dago adierazitako tratu txarrek eta tratu txar teknikoak identifikatzeko. Hori dela eta, "maila ertain-baxuko" eta "baxuko" emakumeen artean tratu txar teknikoaren (%30,1) eta adierazitako tratu txarraren (%29) ehuneko handiagoak daude.
  - c. Zenbat eta hezkuntza maila handiagoa izan, hainbat eta aukera gutxiago dago adierazitako tratu txarrek eta tratu txar teknikoak identifikatzeko. Beraz, indarkeria ehunekorik handienak "oinarriko hezkuntzarik" eta "ikasketarik" ez duten emakumeen artean gertatzen dira.
  - d. Laneko okupazioa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aukera gutxiago dago adierazitako tratu txarrek eta tratu txar teknikoak identifikatzeko. Hortaz, emakume ez-aktiboen artean ehuneko handiagoak daude adierazitako tratu txarrean (guztizkoaren %71) eta tratu txar teknikoan (%68,6), batez ere, "etxeandreen" artean.
  - e. Udalerriko biztanle kopurua zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aukera handiagoa dago adierazitako tratu txarrek eta tratu txar teknikoak identifikatzeko, baina kasu honetan diferentziak ez dira oso handiak.
16. Azken batean, ikusten da okupazioak, ikasketa mailak eta maila edo posizio sozial altuak nahiz ertainak, nolabait ere, moteldu egiten dutela emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren presentzia.
17. Bizkaian bizi eta adierazitako tratu txarraren taldean dauden emakume guztien %6,5 atzeritarrak dira. Era berean, adierazitako tratu txarraren taldeko guztien %45,2 EAetik kanpo jaio da.

- Indarkeria egoeren tipologia, horien maiztasuna eta tratu txarraren eragilearen profila, adierazitako tratu txarraren eta tratu txar teknikoaren taldeetan
18. "Indarkeria psikologikoaren" tipologia-  
ren barruko egoerek presentzia dute,  
bai banaka edo bai taldeka, adiera-  
zitako tratu txarreko eta tratu txar  
teknikoko taldeen barruko emakumeen  
%90ean.
  19. "Ez du baloratzen zeuk egindako lana  
(emakumea etxean)" deritzona da  
emakumeen aurkako indarkeria egoera  
nagusia, tratu txar teknikoaren tal-  
dean; izan ere, talde horretako emaku-  
meen ia %76k esan dute egoera hori  
sarritan edo batzuetan jasaten dutela  
gaur egun.
  20. Aldiz, adierazitako tratu txarraren tal-  
dean, egoerarik ohikoena "oihu, irain  
edo mehatxu egiten dizu" da, eta hori  
kasu guztien %61,3an agertzen da.
  21. Horren eraginez, oihuek, irainek eta  
mehatxuek, indarkeria psikologikoari  
loturiko egoerak eta psikologikoak ez  
direnak batuta, aldea markatzen dute  
adierazitako tratu txarreko taldearen  
eta tratu txar teknikoko taldearen  
artean, eta hori, aldi berean, inflexio-  
puntua da emakumeak tratu txarraren  
jasotzailatzat duen pertzepzio indibi-  
dualean.
  22. Adierazitako tratu txarreko taldearen  
barruko emakume guztien %85,2k esan  
dute etxe barruko indarkeria egoera "6  
urte baino gehiagotik" honakoa dela.
  23. Aldi hori handitu egiten da tratu txar  
teknikoaren kasuan: %93. Horrek talde  
horretako emakumearen ohiko profila  
adierazten du (50 urtetik gorakoa, ia 30  
urteko bizikidetzat, etab.), eta hori, era  
berean, tratu txarraren eragile nagusia-  
ren ohiko profilari lotuta dago: "bikote-  
kidea", kasu guztien %96,5ean.
  24. Adierazitako tratu txarraren taldeko  
emakumeen indarkeriaren eragilea biko-  
tekidea da (%76,2); horren oinarritzko  
profil soziodemografikoa: 60,50 urteko  
batez besteko adina, %62,5ek oinarritzko  
ikasketak edo horiek ere ez, eta ehuneko  
bera ez-aktibotasun egoerari dagokio-  
nez, gehienbat jubilatua (%56,3).
  25. Adierazitako tratu txarraren barruko  
emakume taldearen esperientziak auke-  
ra ematen du ikerketako beste alderdi  
nagusienetarikoa bat identifikatzeko:  
"matxismoa" da, eta ez beste arazo edo  
patologia batzuk, emakumearen aur-  
kako etxe barruko indarkeria egoeraren  
eragile nagusia.
  26. Emakumeen aurkako etxe barruko indar-  
keria egoeren hiru efektu nagusiak "ara-  
zo emozionalak", "arazo ekonomikoak"  
eta "familiakoen arduraren osoa" dira, ha-  
rremana apurtu ondoren, adierazitako  
tratu txarraren taldean dauden emaku-  
meek esan dutenez. Nagusitasun ho-  
rrek gainditu egiten du tratu txarraren  
egoerarekin jarraitzen duten ekintzen  
presentzia (jazarpena, mehatxuak), bai-  
ta oraingo baliabide sozialak lortzeko  
arazoak ere.
  - **Tratu txar teknikoaren zentzu zorrotzean  
taldea, arrisku taldetzat hartuta**
  27. Tratu txar teknikoaren zentzu zorrotzean  
taldeko emaitzak (Bizkaiko Lurralde His-  
torikoko kasu guztien %13,3) bitarteko  
posizioan daude, tratu txar teknikoaren  
emaitzen eta adierazitako tratu txarre-  
ko emaitzen artean, eta azken horietara  
hurbiltzen dira: "ez du baloratzen zeuk  
egindako lana" egoeraren garrantzi  
txikiagoa, "oihu, irain edo mehatxu  
egiten dizu" egoeraren presentzia han-  
diagoa, baita indarkeria sozialeko nahiz  
ekonomikoko (edo biak batera) egoeren  
presentzia handiagoa ere.
  28. Bizkaian, etxe barruko indarkeriaren  
biktimak izateko arrisku handiagoa  
duen emakume taldea dago; hain zuzen  
ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi  
diren emakumeen %13,3. Eta talde ho-  
rren izena "tratu txar teknikoaren zentzu  
zorrotzean" da.

- Emakumeen aurkako indarkeria egoerek Bizkaiko etxeetan duten presentzia
29. "Emakumeen aurkako indarkeria egoera" Bizkaian bizi diren emakume guztien laugarren arazo nagusia da, eta erantzun guztien %38,7ra heldu da; horren aurretik, honako hiru arazo hauek daude: "etxeko lanak gutxietsita egotea", "emakumearen lan baldintza txarragoak" eta "laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko arazoak".
  30. Adierazitako tratu txarraren taldean dauden emakumeen iritziz, "emakumearen aurkako indarkeria egoera", hala ere, emakumearen bigarren arazo nagusia da.
  31. Lehen esan dugunez, Bizkaian bizi diren emakumeen %18k diote emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak ezagutzen dituztela inguru hurbilean.
  32. Ezagupen hori handiagoa da adierazitako tratu txarraren eta tratu txar teknikoaren barruan dauden emakumeen artean (%29 eta %24,8 hurrenez hurren).
  33. Egoera horiek familiarik kanpoko inguru hurbilean kokatzen dira; batez ere, "lagunak" eta "ezagunak", eta hamar kasutik zortzitan identifikaturiko tratu txarraren eragile nagusia "senarra" da.
  34. Gertaera nagusia "salaketarik ez egotea" da, eta beraz, emakumeen aurkako indarkeria egoeraren "mantenamendua" (gehienbat, "indarkeria fisikoa eta psikologikoa" batera dituzten egoerak).
- Halako harremanak apurtzeko oztopoak
35. Adostasuna dago emakumeen aurkako indarkeria egoerak dituzten harremanak apurtzea ekiditen duten hiru oztopo nagusiak identifikatzeko orduan: "baliabide ekonomikorik ez edukitzea", "bikotekidearen mendekuaren beldurra" eta "seme-alabak" (familia unitatea mantendu).
  36. Adierazitako tratu txarraren taldean, indarkeriari eta ekonomiari loturiko zergatiak nagusitzen dira, eta tratu txar teknikoaren taldean, berriz, zergati ekonomikoa da argi eta garbi garrantzitsuena.
  37. Oztopo sozialak ("lotsa edo besteek esango dutena"), kulturalak ("matxis-moa") eta instituzionalak ("laguntzarik ez"), azkenik, lehen aipaturiko zergati ekonomikoen, bortitzen eta familiakoen menpe daude.
- Oraingo laguntza baliabideen ezagupen maila
38. Bizkaian bizi diren emakume guztien %40k diotenez, orokorrean, "ez dakite zer egin edo nora joan", emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak daudenean.
  39. Ez jakitearen ehuneko hori oraindik ere handiagoa da tratu txar teknikoaren kasuan (%43,1), baina batez ere adierazitako tratu txarraren taldean dauden emakumeen artean (talde horren guztizkoaren %61,3).
  40. Horrenbestez, alde handia dago Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuan laguntzarako dauden baliabide instituzionalen eta emakumeok baliabide horiek jasotzearen artean.





## VI. kapituluu

### Bibliografia



## 6. BIBLIOGRAFIA

- ARARTEKO. *Perspectiva institucional a la violencia contra las mujeres en la C.A.P.V.* Vitoria-Gasteiz, 2003.
- CENTRO REINA SOFÍA PARA EL ESTUDIO DE LA VIOLENCIA. *Violencia contra la mujer. Situación Mundial Actual.* 2000.
- *Violencia contra la mujer en las relaciones de pareja: estadísticas y legislación.* 2003.
  - *La violencia contra la mujer en el espacio discursivo público.* 2005.
- CORSÍ, J. (KOORD.) *Maltrato y abuso en el ámbito doméstico.* Paidós. Bartzelona. 2003.
- DURÁN, M. A. *De puertas adentro.* Emakumearen Institutua. Madril. 1987.
- ELIAS, N. *El proceso de civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas.* Mexiko.1987.
- EMAKUNDE. *La violencia contra las mujeres.* Vitoria-Gasteiz. 2005eko maiatzean gaurkotuta.
- FARNÓS, T. "Las raíces psicosociales y culturales de la violencia." *Documentación Social*, (Monografikoa. "Violencia y Sociedad"), 2003, apirila-abendua, 131. zenb.,11-30. or.
- FUNDACIÓN LA CAIXA. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España.* Inés Alberdi eta Natalia Matas. Bartzelona. 2002.
- EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN BULEGOA. *Los malos tratos en la pareja.* 1998ko otsaileko txostena.
- IBÁÑEZ GONZÁLEZ, M. *Violencia doméstica en Euskadi: malos tratos a la mujer. Análisis y definición del proceso de ruptura con una relación de maltrato.* Eusko Jaurlaritz. Lehendakaritza. 2004.
- EMAKUMEAREN INSTITUTUA. *La violencia contra las mujeres. Resultado de la macroencuesta.* 1999ko uztaila. Madril. 2000.
- La violencia contra las mujeres. Resultado de la macroencuesta.*2002.Madril.2003(inprimaturiko edizio barik).
- MURILLO, S. *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio.* Siglo XXI. Madril. 1996.
- BIZKAIKO GENEROKO INDARKERIAREN BEHATOKIA. *Jardueren Memoria, 2004.* (www.Bizkaia.net/Gizartekintza/Genero\_Indarkeria/ca\_index.html)
- SANMARTÍN J. "La violencia y sus claves". Ariel. Bartzelona. 2002.
- SANMARTÍN J. "Las raíces de la violencia". *Debats* aldizkaria, 2000, 70/71 zenbakiak, (Monografikoa. "Violencia"), 7-17. or.
- SANMARTÍN J. (KOORD.) *El laberinto de la violencia.* Ariel. Bartzelona. 2004.





I. Eranskina

Taulen eta grafikoen  
aurkibidea



## TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1.	grafikoa.	Adin taldeak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	28
2.	grafikoa.	Bikotekideen arteko harremana eta bizikidetzak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	29
3.	grafikoa.	Egoera zibila, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	30
4.	grafikoa.	Bikotekidea edo bikotekideren bat azken hamar urteotan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	31
1.	taula.	Gaur egun etxean bizi diren pertsonak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 . . . . .	32
5.	grafikoa.	Seme-alabak edukitzea, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 . . . . .	32
2.	taula.	Gaur egun etxean bizi diren pertsonak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 . . . . .	33
6.	grafikoa.	Bizikidetzak guneari egindako ekarpen ekonomiko nagusiaren jatorria, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	34
7.	grafikoa.	Posizio soziala (edo maila sozial subjektiboa), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	35
3.	taula.	Ikasketak maila, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	36
4.	taula.	Lan egoera, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	37
8.	grafikoa.	Oraingo lan egoera (okupatuak, langabetuak eta ez-aktiboak), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	37
9.	grafikoa.	Gaur egun okupaturik egotearen zergati nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	38
10.	grafikoa.	Ez-aktibotasun edo langabeziako oraingo egoera baino lehen okupatuta, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	40
11.	grafikoa.	Enplegua utzi izanaren zergati nagusiak (lehen okupaturik zeuden emakumeen eta orain ez-aktibotasun edo langabezia egoeran dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	40
12.	grafikoa.	Lan bilaketa (lehen okupaturik zeuden emakumeen eta orain ez-aktibotasun edo langabezia egoeran dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	41
13.	grafikoa.	Enplegua ez bilatzearen zergati nagusiak (lehen okupaturik zeuden emakumeen eta orain ez-aktibotasun edo langabezia egoeran dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	41
5.	taula.	Jaiotze lekua, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	43
14.	grafikoa.	Bizilekua (udalerraren tipologia), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 . . . . .	43
6.	taula.	Bizilekua (udalerraren tipologia), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 . . . . .	44
7.	taula.	Guztizkoa. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazioa, Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 (Erantzun anitza*). . . . .	46
15.	grafikoa.	Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . .	47
8.	taula.	Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia bat baino gehiago, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 . . . . .	48

16. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia bat baino gehiago, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . . 49
17. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren noiztik honakoa, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . . 49
9. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . . 50
10. taula. Bikotekidearen adina, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia denean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . . 51
11. taula. Bikotekidearen ikasketa maila, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia denean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . . 52
12. taula. Bikotekidearen lan egoera, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragile nagusia denean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. . . . . 52
13. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazioa, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza\*). . . . . 54
18. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 55
14. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia baten edo gehiagoren presentzia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 56
19. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia baten edo gehiagoren presentzia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 57
20. grafikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren noiztik honakoa, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 57
15. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako tratu txarren eragile nagusia, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 58
16. taula. Bikotekidearen adina, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragile nagusia denean, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 59
17. taula. Bikotekidearen ikasketa maila, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragile nagusia denean, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 59
18. taula. Bikotekidearen lan egoera, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragile nagusia denean, "Tratu txar teknikoak zentzu zorrotzean" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 60
19. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005. . . . . 61



20.	taula.	Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragilearen identifikazioa, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005 (Erantzun anitza*).	. . . . . 61
21.	taula.	Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretako eragilearen arazoak edo patologiak, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 62
21.	grafikoa.	Indarkeria egoera batek Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren bikotekiderik gabeko emakumeen harremanaren amaieran duen eragin erabakigarria, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 63
22.	taula.	Indarkeria egoera zuten harremanak apurtzearen ondorioak: Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren inkestatuaren iritzia, "Adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005 (Erantzun anitza*).	. . . . . 63
22.	grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren ezagupena, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 64
23.	taula.	Emakumeen arazo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005. (Erantzun anitza*).	. . . . . 65
23.	grafikoa.	Emakumeen lau arazo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 (Erantzun anitza*).	. . . . . 66
24.	taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren biktima den emakumea, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 66
25.	taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren iraupena, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 67
24.	grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren eragilearen identifikazioa, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 68
25.	grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 68
26.	grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuen salaketaren ezagupena, inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 69
26.	taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera duten harremanak apurtzeko oztopo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 (Erantzun anitza*).	. . . . . 70
27.	grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoera duten harremanak apurtzeko lau oztopo nagusiak, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005 (Erantzun anitza*).	. . . . . 71
28.	grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak daudenean egin beharrekoaren eta joan beharreko lekua ezagupena, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005.	. . . . . 72





## II. Eranskina

Telefonotik egindako  
galdeketa. (2005eko  
Urria - Azaroa)



## Telefonotik egindako galdeketa (2005eko Urria-Azaroa)

Egunon/Arratsaldeon: ... naiz eta Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumea eta Familia Zerbitzutik deitzen dizut. Ikerketa bat egiten ari gara emakumearen egoera orokorra ezagutzeko (kezka nagusiak, harremanak, seme-alabak, etab.), eta zeure iritzia jakin nahiko genuke. Auzaz aukeratu zaitugu ikerketan parte hartzeko, eta, beraz, zure erantzunak anonimoak izango dira (estatistika sekretuko legearen arabera).

- 1. aukera: prest dago → hasi lehenengo galderarekin.
- 2. aukera: ikerketaren ofizialtasunari buruzko zalantzak ditu → eman 94-4066900 telefono zenbakia, Emakumea eta Familia Zerbitzuaren erreferentziatzat.
- 3. aukera: ez dago prest → eman eskerrak arretea eskaintzeagatik.
- 4. aukera: beste une batean edo beste telefono batera deitzeko esan du.

## EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

1. Zenbat urte dituzu? \_\_\_\_\_ [ezinbestekoa da 18 urtetik gorakoa izatea]

2. Zein dira zure ikasketak?

- |   |    |
|---|----|
| - Alfabetatu barik  | 1  |
| - Oinarrizko ikasketak amaitu gabe                                      | 2  |
| - Oinarrizko ikasketen ziurtagiria / OHO titulu barik                   | 3  |
| - Eskola graduatua / Oinarrizko Batxilergoa errebalidarekin             | 4  |
| - 1. mailako LH (teknikaria edo teknik. laguntzailea) / Industria ofiz. | 5  |
| - 2. mailako LH (teknikaria edo tek. aditua) / Industria maisutza       | 6  |
| - BBB/UBI/Goi Batxilergoa errebalidarekin                               | 7  |
| - 1. zikloko unibertsitate titulazioa (Diplomatura)                     | 8  |
| - 2. zikloko unibertsitate titulazioa (Lizentziatura)                   | 9  |
| - 3. zikloko unibertsitate titulazioa (Doktoretza)                      | 10 |
| - Beste batzuk. Adierazi. ....  | 11 |

3. Zein probintzian jaio zara? \_\_\_\_\_

- Atzerritarra izenez gero, idatzi naziotasuna (herria) \_\_\_\_\_

4. Zein da zeure egoera zibila:

- |   |   |
|---|---|
| - Ezkondua                                | 1 |
| - Dibortziatua. Baliogabeturiko ezkontza. | 2 |
| - Banantzeko edo dibortziazeko tramitean  | 3 |
| - Bananduta (egitatez)                    | 4 |
| - Bananduta (legez)                       | 5 |
| - Ezkongabea                              | 6 |
| - Adosturiko batasuna erregistroarekin    | 7 |
| - Adosturiko batasuna erregistro barik    | 8 |
| - Alarguna                                | 9 |

5. Zeure egoera zibila edozein izan arren, gaur egun:

- |   |                   |
|---|-------------------|
| - Bikotekidea duzu eta berarekin bizi zara (etxe berean)      | 1 (joan 6. gald.) |
| - Bikotekidea duzu baina ez zara berarekin bizi (etxe berean) | 2 (joan 6. gald.) |
| - Ez duzu bikotekiderik                                       | 3 (joan 9. gald.) |

6. Zein da zeure bikotekidearen adina? \_\_\_\_\_

7. Eta bikotekidearen ikasketak? \_\_\_\_\_ (errepikatu 2. gald. kodea)

8. Zenbat denbora daramazu oraingo bikotekidearekin? \_\_\_\_ (urteak, gutxi gorabehera)
9. [5. gal.ko 3 kategoriarako bakarrik, eta 8. gald. 10 urtetik beherakoa bada bakarrik]  
Azken hamar urteotan bikotekiderik edo beste bikotekideren bat izan duzu?
- Bai 1 → Bat baino gehiago? \_\_\_\_ (gutxi gorabehera, zenbat?)
  - Ez 2
10. Seme-alabarik baduzu?
- Bai 1 Zenbat? \_\_\_\_ → Zenbat urtekoak? (adierazi banan-banan) \_\_\_\_
  - Ez 2
11. Guztira, zeu ere barne, zenbat pertsona bizi dira zeure etxean orain?
12. Nortzuk dira? (erantzun anitza, iradoki barik)
- Nire bikotekidea 1
  - Nire seme-alabak 2
  - Familiako beste batzuk 3 → zeintzuk? \_\_\_\_\_
  - Familiakoak ez diren beste batzuk 3 → zeintzuk? \_\_\_\_\_
  - Bakarrik bizi naiz 5

## ENPLEGUA

13. Zein da zure oraingo lan egoera (okupazioa? {≅ 11. gald. IM})
- |   |    |                |
|---|----|----------------|
| - Zeure kontura okupatuta (autonomia)                           | 1  | Joan 15. gald. |
| - H. Administrazioan okupatuta                                  | 2  |                |
| - Inoren kontura okupatuta (kontratu mugagabea)                 | 3  |                |
| - Inoren kontura okupatuta (aldi baterako kontratua)            | 4  |                |
| - Kontratu barik lanean   | 5  |                |
| - Etxeko enplegatua   | 6  |                |
| - Etxekoandrea / Etxeko lanak                                   | 7  | Joan 16. gald. |
| - Ikaslea   | 8  |                |
| - Langabetua langabezia kobratzen                               | 9  |                |
| - Langabetua langabezia kobratu BARIK                           | 10 |                |
| - G. S. pents. (alarguna, erretiroa edo aurretiazko erret.)     | 11 |                |
| - Elbar. Iraunk. edo Ezgait. pentsioa kobratzen                 | 12 |                |
| - Lag. Soz. jasotzailea (diru-laguntza, Oinarrizko Errenta,...) | 13 |                |
| - Jubilatua edo Ezgit. pentsiorik eta diru-laguntzarik gabe     | 14 |                |
| - Beste egoera batzuk (adierazi) .....                          | 15 |                |
14. Eta zure oraingo bikotekidearen oraingo lan egoera? \_\_\_\_ (Errepikatu 13. gald. kodea)

## ORAIN LANEAN ARI DIRENENTZAT BAKARRIK (13. gald.ko 1-6 kategoriak)

15. Zein dira zuk lan egitearen bi zergati nagusiak?
- Etxeko mantenamendurako dirua behar dudalako 1
  - Nire lanbide ezagupenak aplikatzeko 2
  - Autonomia pertsonal handiagoa edukitzeko (inoren menpe ez egoteko) 3
  - Independentzia ekonomikoa edukitzeko 4
  - Etxetik irteteko eta harremanak edukitzeko 5
  - Diru gehiago edukitzeko 6
  - Beste batzuk (adierazi) ..... 7(joan 20. gald.)

## ORAIN LANEAN ARI DIRENENTZAT BAKARRIK (13. gal.ko 7-15 kategoriak)

16. Ordaindutako lanik izan duzu orain arte?

- Bai 1 (joan 17. gald.)
- Ez 2 (joan 18. gald.)

17. Eta zergatik utzi zenuen? (erantzun anitza, iradoki gabe)

- Ez zegoen ondo ordainduta 1
- Ordutegi txarra zuen niretzat (ordutegia bateraezina zen) 2
- Ezkondu egin nintzen 3
- Etxeko lanak egiteko 4
- Seme-alabak zaintzeko 5
- Bikotekidea aurka zegoen 6
- Kontratua amaitu zitzaidan 7
- Ez nuen lanean jarraitzeko interesik 8
- Jubilatatu edo aldez aurretik jubilatatu nintzen 9
- Beste batzuk (lanetik bota, kontratua berriztatu ez, etab.) 10 → zeintzuk? \_\_\_\_

18. Enplegu bila ari zara orain?

- Bai 1 (joan 20. gald.)
- Ez 2 (joan 19. gald.)

19. Zergatik ez? (erantzun anitza, iradoki gabe)

- Ondo prestatu ez nagoelako 1
- Orain arteko moduan jarraitu nahi dudalako 2
- Seme-alabak zaindu nahi ditudalako 3
- Adinik ez dudalako 4
- Bikotekideak nahi ez duelako 5
- Seme-alabek nahi ez dutelako 6
- Familiako batzuek nahi ez dutelako 7
- Lanik ez dagoelako (lana aurkitzea oso zaila da) 8
- Beste egoera batzuk 9 → zeintzuk? \_\_\_\_

## EMAKUMEAREN EGOERA

20. Zure ustez, zein dira zugar eta inguruko emakumeengan orain eragina duten bi arazo nagusiak?

- Laneko eta familiako bizi arazoak 1
- Emakumearen lan baldintza txarrak 2
- Etxeko lanak gutxietsita egotea 3
- Emakumearen eginkizunaren onarpen sozial urria 4
- Seme-alabak heztearen zailtasuna 5
- Emakumearen aurkako indarkeria egoerak 6
- Beste batzuk 7 → zeintzuk? \_\_\_\_

21. [Denei egin, orain bikotekiderik ez dutenei (5. gald.ko 3. kategoria) eta bakarrik bizi direnei (12. gald.ko 5. kategoria) izan ezik]. Gaur egun, zure etxeko pertsonaren bat edo bikotekidea zein maiztasunarekin (adierazi kategoriak)..., elkarrekin bizi ez arren?

22. Zein da pertsona hori?

	21. gald.					22. gal. Zein da pertsona hori? (21. gald.ko 1. eta 2. erantzunak bakarrik)								
	Sarritan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ere ez	Ed Ee	Bikotekidea	Seme-alabak	Seme-alabak	Aita	Ama	Nebarrek	Familiako bete batzuk	Familiako ez diren beste batzuk	Ed Ee
1. Ez dizu familia ikusten uzten edo lagunekin, auzokoekin eta abarrekin harremanak izaten.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
2. Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu mantenu autonomorako nahikoa ematen.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
3. Oihu, irain edo mehatxu egiten dizu.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
4. Etxeko gauzak apurtzen ditu.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
5. Ez dizu lanik egiten edo ikasten uzten.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
6. Gastuak kontrolatzen dizkizu (libretak, txartelak, etab.)	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
7. Diru gehiegi gastatzen du, etxeko beharrezaneko kalteetan.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
8. Sexu-harremanak edukitzeke orduan presionaturik sentitzen zara; nahi ez duzula edo gogorik ez duzula jakin arren, ekin egiten du.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
9. Ez dizu kasurik egiten sexu harremanak eduki nahi dituzanean.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
10. Ez dituzure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiosoak, etab.), edo ez dituzure zaletasunak (janzteko modua) eta beharrezan afektiboak aintzat hartzen.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
11. Bultzatzea, jotzea edo gauzak jaurtikitzea atsegin du.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
12. Ez du baloratzen zeuk egindako lana.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
13. Gauzak zeuk bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, traketsa hutsa zarela.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
14. Leku txarrean uzten zaitu (deskalkifikazioak, ezeztapenak, barregarri uzteak...) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunaren aurrean, familiakoaren aurrean, etab.).	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9



23. [21. gal. ko 1. (sarritan) eta 2. (batzuetan) erantzunak bakarrik, eta 22. galderan adierazitako pertsoneri buruz galdetu bakarrik] Eta egoera horiek noiztik honakoak dira ...?

	Urte 1 baina gutxi	1-5 urte	6-10 urte	10 urte baina gehiago	Ed/Ee
1. Bikotekidea	1	2	3	4	9
2. Semeak	1	2	3	4	9
3. Alabak	1	2	3	4	9
4. Aita	1	2	3	4	9
5. Ama	1	2	3	4	9
6. Neba-arrebak	1	2	3	4	9
7. Familiako beste kide batzuk	1	2	3	4	9
8. Familiakoak ez diren pertsonak	1	2	3	4	9

24. [Galdetu inkestatu guztiei] Egoeraren batean sentitu edo pentsatu duzu familiakoren batek nahiz zurekin bizi den pertsonaren batek tratu txarra eragin dizula, edo harreman afektibo edota sentimentalaren batean tratu txarra jaso duzula, azken bi urteotan?

- Bai 1 (joan 25. gald.)
- Ez 2 (joan 28. gald. edo 30. gald.)

#### EUREN TRATU TXAR EGOERA ONARTZEN DUTENENTZAT BAKARRIK (24. gald., bai)

25. Zein alderditan sentitzen dituzu edo sentitu dituzu tratu txarrak? \_\_\_\_\_  
[Erantzun irekia, indartu lehenago adierazitako alderdiekin]

26. Nork eragin dizkizu? (erantzun anitza, iradoki barik)

- Bikotekidea 1
- Semeak 2
- Alabak 3
- Aita 4
- Ama 5
- Neba-arrebak 6
- Familiako beste kide batzuk 7 → zeintzuk? \_\_\_\_
- Familiakoak ez diren pertsonak (bikotekide ohia) 8

27. Pertsona horiek, honako hauek bezalako arazoak dituzte? (erantzun anitza)

- Alkohol arazoak 1
- Droga arazoak 2
- Behin-behineko lan egoera 3
- Langabezia 4
- Laneko presioa (estresa) 5
- Arazo psikikoa (burukoa) 6
- Matxismoa (jeloskortasuna, jabetza zentzua) 7
- Beste arazo batzuk 8 → zeintzuk? \_\_\_\_

## AZKEN 10 URTEOTAKO TRATU TXAR EGOEREI LOTURIKO APURTZEEN IDENTIFIKAZIOA

28. [Azken 10 urteotan bikote-harremana apurtu dutenentzat soilik (9. gald.ko 1. kategoria)]

Harremana amaitzeko erabakiaren eragilea tratu txarreko egoeraren bat izan da?

- Bai 1 (joan 29. gald.)
- Ez 2 (joan 30. gald.)

29. Harremanaren amaierak hauxe eragin zizun (honako ondorio hauetarikoren bat) ...  
erantzun anitza)

	Sarritan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ez	Ed/Ee
1. Ahozko mehatxuak	1	2	3	4	9
2. Erasoak	1	2	3	4	9
3. Jazarpena	1	2	3	4	9
4. Beste bikote-harreman batzuetan sartzea	1	2	3	4	9
5. Seme-alabekiko arazoak	1	2	3	4	9
6. Beste familiako batzuekiko arazoak	1	2	3	4	9
7. Lan arazoak	1	2	3	4	9
8. Arazo emozionalak (depresioa, antsietatea, etab.)	1	2	3	4	9
9. Arazo ekonomikoak	1	2	3	4	9
10. Arazoak baliabide sozialak lortzeko orduan	1	2	3	4	9
11. Familiako arduraren osoa	1	2	3	4	9
12. Beste ondorio batzuk, zeintzuk? _____	1	2	3	4	9

## EMAKUMEEN AURKAKO INGURU HURBILEKO INDARKERIA EGOEREN EZAGUPENA

30. [Galdetu inkestatu guztiei] Bestalde, inguru hurbilean ezagutzen duzu tratu txarren biktima den emakumeren bat (familia, lagunak, auzokoak, lanekoak)?

- Bai 1 (joan 31. gald.)
- Ez 2 (joan 35. gald.)

## TRATU TXARREN EGOERA EZAGUTZEN DITUZTENENTZAT BAKARRIK (30. gald., bai)

31. ... da? Eta ... izan da? (erantzun anitza)

	Urte 1 baino gutxiago	1-5 urte	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Ed/Ee
1. Ama	1	2	3	4	9
2. Alaba(k)	1	2	3	4	9
3. Ahizpa	1	2	3	4	9
4. Amaginarreba (oraingo bikotekidearen ama)	1	2	3	4	9
5. Familiako beste batzuk, zeintzuk? _____	1	2	3	4	9
6. Beste emakume batzuk, zeintzuk? _____	1	2	3	4	9

32. Nork? \_\_\_\_\_ [Erantzun irekia]

33. Zer motatako tratu txarra? \_\_\_\_\_ [Erantzun irekia]

34. Badakizu salatu den ala ez? \_\_\_\_\_ [Erantzun irekia]

#### GALDETU INKESTATU GUZTIEI

35. Inguru hurbileko tratu txarren egoerak ezagutu ez arren, zure ustez zergatik ez dira apurtzen halako harremanak? (gehienez hiru erantzun)

- Bikotekidearen mendekuaren beldurragatik 1
- Baliabide ekonomikoak ez edukitzeagatik 2
- Seme-alabengatik (familia unitatea mantendu) 3
- Familiakoak zaintzeagatik (zaharrak, etab.) 4
- Familiako gainerako kideengatik (ez dute onartzen) 5
- Erakundeek laguntzarik ez emateagatik (baliabideak, zerbitzuak, etab.) 6
- Aldatu egingo direla pentsatzeagatik 7
- Maite dutelako (mendekotasun emozionala) 8
- Oraingo kulturarengatik eta balioengatik (matxistak) 9
- Bakardade sentsazioarengatik 10
- Lotsarengatik (besteek esango dutena) 11
- Beste zergati batzuk (hezk. moralak, espetx. sartuko lituzkete, etab.) 7 → zeintzuk? \_\_\_\_

36. Zure iritziz, tratu txarreko egoeren aurrean jendeak badaki zer egin edo nora joan?

- Bai 1
- Ez 2

37. Eta, amaitzeko, zein maila sozialetan kokatuko zenuke zeure burua eta zeure familia?

- Altua 1
- Ertaina-altua (dirudunak) 2
- Ertaina 3
- Ertaina-baxua (langileak) 4
- Baxua 5

38. Etixerako ekarpen ekonomiko nagusia honako honek egiten du:

- Zeuk 1
- Bikotekideak 2
- Biok berdin 3
- Seme-alabek 4
- Familiako beste batzuek 5 → zeintzuek? \_\_\_\_
- Denek berdin 6 → zeintzuek? \_\_\_\_

39. Galdeketa jaso gabeko beste gauzaren bat esan nahi baduzu.

Eskerrik asko parte hartzeagatik

40. Inkestatzailearen iruzkinak/oharrak: \_\_\_\_\_

